



# LEITZA - 10



32 -  
ZENBAKIA  
TIBURTZIO DONEAREN PEJAK

KoLDo  
10

AZALAREN LEHIAKETAN parte hartu duten kartelak



2010eko Plazaola Aldizkarirako azalaren lehiaketan parte hartu dutenak honako hauek dira: 1. Aingeru Zabaleta/gora pestak - 2. Aingeru Zabaleta/nortasuna pestaz betea - 3. Iriber Arangoa/banoa - 4. Lierni Sestorain/Lise

Irabazle izan den Koldo Fagoagari ZORIONAK!

# Alkatearen agurra

Kaixo leitzar!

Urtero bezela, heldu zaizkigu Leitzako pestak, inoiz baino berezitasun gehiagorekin eta landutako egitarau txukun batekin. Otsailetik hasi eta abuztuaren 15, 16, 17... arte lanean aritu eta ariko zareten guztioi Esker haundi bat!

Jakina da Herriko Etxeak funtziona dezan lan asko egin beharra dagoela; lanaren zurrunbiloan sartuta, ez gara ohartzen bertako langileek egiten duten lan eskergaz, Esker haundi bat bere lan eta eginkizunetatik haratago, gogoz lan egiten duten langile guztiei.

Jadanik pasa dira 3 urte udaletxean sartu ginenetik; badatoz gure 4. pestak eta barkatuko dizkidazuen hitz batzuk:

Badira, udaletxean eta herrian, gora eta behera ibiltzen diren langile berezi batzuk, beraien denbora galduz, beraien baliabideak jarriz, jendearekin hizpidetuz, batzutan hitz onez, beste batzutan... herri honen alde lanean aritzen diren lagunak, askotan... gehienetan... ezin ulertuzko borondatearekin, pazientziarekin eta ilusioarekin ekin eta bueltaka ari direnak:

Orain arteko nere Eskerrik beroenak zuen lana, herriarengatik maitasuna eta eduki duzuen dedikazio guztiarengatik. Mila esker eta besarkadarik beroena lanean aritu eta ari zareten zinegotzi guztiei.

Bestalde, barkamena zuei herritarroi, Euskal Herriko ikurren gaiarekin egindako akatsengatik, nahiz eta legealdiko gairik landuenetakoa izan, portura eraman ezin izan dugun proiektua izan delako. Aipamen berezia, atsedean gabe gai honetan lanean aritu zaretenoi.

Oroitzapen bereziena eta sentituena etxean beharko luketen guzti-guztiei, eta bereziki-bereziki: Aupa Miren, Eneko, Iñigo...

Bukatzeko ez dut aipatu gabe utzi nahi, Leitza Euskal Herrian kokatuta dagoen herria delarik, konponbidea behar duen herria, Elkarrizketa eta Demokrazia asko behar duen herria eta erabakitze eskubidea duen herria dela.

Festetan ere berdintasunaren alde egin. Ongi pasatu, pasa gabe eta errespetuz jokatu. Emakumearenganako erasorik ez!



Javier Zabalo Betelu.



# Egitaraua

## ABUZTUAK 7

larunbata  
reparto eune

**12:30** Poteoa gaiteroekin

**14:00** Eskalarin Bazkaria Aurreran

**16:00** Auzoz auzo PLAZAOLA aldizkariaren banaketa trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroekin

**17:00** Txirrindulariak industrialdean

**18:30** OXABI erromeri taldearekin kalejira erreibindikatioa.

**20:00** Karparen irikiera eta ekitaldia

**24:00** Kontzertuak karpan

- Kantaflor
- Lesviolentan
- DJ Korta y Pega



# ABUZTUAK 8

igandea  
umen eune

**08:00** Diana txistulariekin

**11:30** Umeen txupinazoa Udaletxetik eta ondoren hamaiketakoa

**Ondoren:** Aurrera Pilota Eskolako gazteak arituko dira plazan:

**11:30-14:30** Puzgarriak, jokoak eta bitxigintza, papiroflexia eta aurpegi margoketa tailerrak umeentzat plazan

**16:30-18:30** Puzgarriak

**18:30** Aurrerako dantzari txikien ikuskizuna eta humeen ingurutxo irikie plazan

**20:00-24:00** Trikidantz taldea. Ordu berean buruhaundiak aterako dira





# ABUZTUAK 10

asteartea  
pesta bezpera

**11:00** Kuadrillen arteko Herri Kirolak plazan

**14:30** Elkartasun Kantu Bazkaria karpan, KUXKUXTU txarangarekin

**14:30** Jubilatuen Bazkaria

**18:00** TXUPINAZOA eta Plazaola Aldizkariko azalaren egileari sari ematea

**Ondoren:** Incansables txaranga, txistulariak, gaiteroak, buruhaundiak, erraldoiak...

**22:00** Suzko zezena

**23:00-12:00** Garraxi taldea plazan

**01:00** Incansables txarangaren erronda

**12:00-01:30** Esne Beltza eta DJ Patt karpan

**01:30-03:30** Garraxi taldea plazan



# ABUZTUAK 11

## asteazkena

### san tiburtzio eune

**08:00** Diana txistulariekin

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan

**10:30** Meza, ondoren hamaiketako irikie karrapen

**12:00** Aurrerako Ezpatadantziak (Ezpatadantzariak)

**Ondoren:** Afizionatuen arteko pilota partidak  
Onsalo-Zabaleta Vs Jaunarena-Iriarte

**13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da

**18:00** Fanfarrea plazan

**19:00** Herri Kirolak plazan:  
Aizkolariak: Arkaitz Olano eta Ruben Saralegi (urrezko aizkoran txapeldun). Ugaitz eta Haratz Muguerza (urrezko aizkoran azpitxapeldun). Eneko Saralegi (19 urtez azpikotan txapeldun)  
Harrijasotzen: Inaxio Perurena, Josetxo Urrutia eta Unai Bertiz (Nafarroako txapeldun)

**Ondoren:** Goxokiak banatuko dira

**19:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak

**20:30** "Komuneko paperean" izeneko poesia musikatua karpan

**21:00** Leitzeko Ingurutxoa plazan nahi dun guzintzako

**22:00** Suzko zezena

**12:30** Kontzertua karpan Marianitox Blai taldearekin

**01:00** Incansables txaranga aterako da eta erronda plazan bukatuko du

**02:00** Zezenak eta Txaranga plazan





## ABUZTUAK 12

osteguna  
pesta bigarrena

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 11:00** Karpan  
- paella lehiaketa  
- sardin eta hirugiharre jatea  
- sagardo dastaketa
- 11:30** KUKUBILTXO-ren "TXIRRIKIZ" ikuskizuna plazan
- 12:30** Emakumezkoen pala partidak plazan
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da
- 14:00** Karpan, paella lehiaketako sari banaketa eta bazkaria bertan gelditu nahi duenak. Bazkalostea euskal kantuekin alaitua izanen da Maite Aizpuruak lagunduta.
- 17:30** Zezenak plazan
- 18:30** Aurrerako dantzarien emanaldia plazan.  
Ondoren goxokiak banatuko dira eta Incansables txaranga aterako da Aurreratik
- 19:30** Pilota partida profesionalak Amazabal pilotalekuan  
Belloso - Oteiza Vs Olaetxea - Albisu  
Olaizola I - Barriola Vs Bengoetxea VI- Beloki
- 22:00** Suzko zezena
- 24:00** Tximeleta taldea plazan
- 01:00** Incansables txaranga aterako da erronda egitera
- 03:00** Leitzeko Ingurutxoa plazan nahi dun guzintzako





# ABUZTUAK 13

ostirala  
gazte eune

- 08:00** Diana txistulariekin
- 09:00** Entzierroa eta behiak plazan
- 10:00** Plater tiraketa herrikoia Baztarlan
- 11:30** Goittiberak
- 12:30** Umeentzako aparra plazan
- 13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da.
- 14:00** Gazte bazkaria Atekabeltzen
- 17:30** Plazan zezenak errekortari eta kolunpioarekin.
- 18:30** Gazte jokuak plazan
- 19:30** Gazte Manifa
- 19:30** Frontis-ko pilotarien partiduak Amazabalen
- 20:30** kalejira rebeindikatiboa Bonberenea txarangarekin
- 22:00** Suzko zezena
- 24:00** Incansables Txarangaren kontzertu-emanaldia plazan
- 01:00** Kontzertuak karpan:
  - Governors
  - Attikus Finch
  - Itziarren Semeak





# ABUZTUAK 14

larunbata  
pesta laugarrena

**08:00** Diana txistulariekin

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan

**12:00** Zetreria ikuskizuna plazan

**13:00** Incansables txaranga aterako da Aurreratik

**18:00** Castellers (Igoaladatik)

**19:00** Bertsolariak plazan:

- M. Lujanbio
- S. Lizaso
- J. Maia
- A. Arzallus
- M. Amuriza
- J. Soto

**Ondoren:** Goxokiak banatuko dira plazan

**20:30** Incansables txaranga eta buruhaundiak

**21:30** Suzko zezena

**22:30** Herri Aparie

**Ondoren:** Afalostea eta kalejira Incansables txarangarekin

**01:00** Kontzertua karpan

- Korunba
- Surfin Kaos
- DJ Jo ta Txo

**Ondoren:** KARAOKEA gaztetxen



# ABUZTUAK 15

## igandea

### ezkondu eta bikoteen eune

**08:00** Diana txistulariekin

**09:00** Entzierroa eta behiak plazan

**12:00** Herri Kirolak plazan

Aizkolariak: Jon Rekondo (Bigarren mailan txapeldun).  
Aitzol Atutxa (Bizkaiaiko Txapeldun). Mikel Zabaleta. Harrija  
sotzen: Mikel Saralegi. Idi proba: Inaxio Telleriaren Idik.  
Harria Leitzakoa

**13:00** Aurreratik Incansables txaranga aterako da

**14:30** Aurrerako Bazkideen bazkaria

**18:00** Bikote eta ezkonduen entzierroa eta ondoren zezenak  
plazan.

**19:00** Ezkondu eta bikoteen Ingurutxoia plazan

**Ondoren:** Goxokiak banatuko dira eta Incansables txaranga  
aterako da.

**21:00** Apari-merendu multikulturala karpan

**22:00** Suzko zezena

**24:00** Mariatxik "Ciudad de Mexico"

**Ondoren:** "Pobredemie" Incansables txarangarekin



# Programa

## SABADO 7 DE AGOSTO

### REPARTO DE PROGRAMAS

12:30 Poteo con gaiteros  
14:00 Comida  
16:00 Reparto  
17:00 Ciclistas  
18:30 Kalejira reivindicativa  
20:00 Apertura de la carpa  
24:00 Conciertos en la carpa

11:30 Kukubiltxo y partidos de pelota  
17:30 Toros  
18:30 Dantzaris del Aurrera  
Seguidamente Incansables txaranga  
19:30 partidos profesionales de pelota en el frontón  
22:00 Toro de fuego  
24:00 Tximeleta  
01:00 Incansables  
03:00 Ingurutxo

## DOMINGO 8 DE AGOSTO

### DIA DEL NIÑO

08:00 Diana  
09:00 Chupinazo de l@s niñ@s y almuerzo  
Seguidamente partidos de pelota  
11:30-14:30 Hinchables, juegos y talleres  
16:30-18:30 Hinchables  
18:30 Dantzaris  
20:00-24:00 Trikidantz y cabezudos

## VIERNES 13 DE AGOSTO

08:00 Diana  
09:00 Encierro y vacas  
11:30 Goitiberas  
12:30 espuma para los pequeños  
13:00 Incansables txaranga  
14:00 Comida en el gaztetxe  
17:30 Toros con recortadores y columpio  
18:30 Juegos en la plaza  
22:00 Toro de fuego  
24:00 Concierto de la charanga Incansables en la plaza  
01:00 conciertos en la carpa  
Karaoke en el gaztetxe

## MARTES 10 DE AGOSTO

11:00 Herri Kirolak  
14:30 Comida con la txaranga Kuxkuxtu  
14:30 Comida de los jubilad@s  
18:00 Chupinazo  
22:00 Toro de fuego  
23:30 Garraxi  
01:30 Conciertos en la carpa. Esne Beltza y DJ  
01:00 Incansables txaranga

## SABADO 14 DE AGOSTO

08:00 Diana  
09:00 Encierro y vacas  
12:00 Cetreria  
13:00 Incansables  
18:00 Castellars(desde Igualada)  
19:00 Bertsolaris  
19:30 Incansables  
21:30 Toro de fuego  
22:30 Comida popular  
Sobremesa y calejira con Incansables  
01:00 conciertos en la carpa

## MIÉRCOLES 11 DE AGOSTO

08:00 Diana  
09:00 Encierro y vacas  
10:30 Misa, después almuerzo  
12:00 Ezpatadantzaris y después partidos de aficionados  
13:00 Incansables  
18:00 Fanfarre en la plaza  
19:00 Herri Kirolak  
20:30 Poesia musicada en la carpa  
21:00 Ingurutxo  
22:00 Toro de fuego  
01:00 Incansables  
24:30 Concierto en la carpa  
02:00 Toros y txaranga en la plaza

## DOMINGO 15 DE AGOSTO

08:00 Diana  
09:00 Encierro y vacas  
12:00 Herri kirolas  
13:00 Incansables  
14:30 Comida de soci@s en el Aurrera  
18:00 Encierro y vacas  
19:00 Ingurutxo  
21:30 Merienda-cena multicultural en la carpa  
22:00 Toro de fuego  
24:00 Mariachis Ciudad de Mexico  
Después "pobredemi" con la charanga  
Incansables

## JUEVES 12 DE AGOSTO

08:00 Diana  
09:00 Encierro y vacas  
11:00 Concurso de paella, degustación de sardinas, tocino y sidra en la carpa. Después comida con canciones vascas.

## OHARRAK

---

1. UDALAK ez du ZEZENETAN gerta daitezkeen istripuen erantzunkizunik hartzen.
2. EGITARAUA borondatearen truke banatuko da. UDALETXEAN, LIBURUDENDETAN eta TABERNETAN ere salgai egonen da
3. ZEZENETAN dabiltzanei eskapa bidea errezagoa egiteko, barreren gainean inor ez esertzea eskertuko genuke.
4. Hamasei urtez azpikoak debekatua dute zezenetara ateratzea.
5. Zezen suzkoan gerta daitezkeen erreketa edo bestelakoen kargu ez gara egiten.
6. ARRAIN PAELLA lehiaketako arauak:
  - Bakoitzak bere sua eraman beharko du. Horretarako osagaiak ere norberak eraman beharko ditu.
  - Nahitaezko osagaiak: Arroza (noski!), arraina, barazkiak... Hortik aurrera bakoitzaren gustoaren eta trebeziaren ariora, eta betiere aurreko osagaiak errespetatuz.
  - Epai mahaiak hartuko du erabakia.
  - Gero nahi duenak bertan bazkaltzeko aukera izanen du. Mahaiak eta aulkiak bertan izanen dira.
7. Pesta laugarrenean GOITIBERAK izanen dira. Hilerritik hasi, Joandegia, Errekaldenea, Male-sakenea eta Gaztelunetik Peritzerrainoko ibilbidea eginen dute. Beraz, bidea itxita egonen da eta bezperatik kotxeak kentzea eskatzen da Peritzeko ataritik gehienbat. Kotxea kentzen ez duenari gruak eramen dio eta berak ordaindu beharko ditu guaren kosteak. Antolaketa lanetan Nafarroako Federazioarekin batera ari gara, beharrezkoak diren anbulantzia, asegu eta babes-jantziak izanen direlarik.
8. Karpako ekitaldiak ez ditu udalak bere gain hartu. Hauek, jende askoren borondatezko lanari esker lortu dira.

## PLAZAOLA ALDIZKARIAREN ANTOLATZAILEEN OHARRAK

---

1. Plazaola Aldizkariaren antolatzaileek ez dute zertan ados egon behar bertan agertzen diren iritzi desberdinetako idazkiekin.
2. Lanak bidaltzen dituztenek beren izenak jakinarazi behar dizkie aldizkariaren antolatzaileei, sor daitezkeen arazo legalaz idazkien egileen erantzunkizuna izanen direlarik.
3. Gure eskerrik zintzoenak, aldizkari hau osatzeko, bere lanarekin lagundu duten idazle eta baita azalaren lehiaketan parte hartu dutenei ere

# PLAZAOLA ALDIZKARIA



Aurrera K.E.  
Elbarren 12  
Tlf/Fax: 948 - 510 187  
Mob: 608 78 92 93  
E-mail: aurrerake@hotmail.com  
Leiza (Nafarroa)

## Aurrerako bazkide hori:

2010ko festak ere iada iritsi zaizkigu eta ongi pasatzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu.

Urtero egin ohi dugun moduan, orri hauek erabili nahi ditugu gure Elkarteko zenbait berri emateko:

- Dagoeneko Elkarteko azken ZUZENDARITZA osatu zenetik bi urte igaro dira eta aldatzeko tenorea ere iritsi da. Aldaketa hau egiteko beti bezela urrian izango da. Gaur egungo zuzendaritzako batzuk aldaketaren beharra adierazi dute eta horregatik bazkideen parte hartzea beharrezkoa da. Elkarteko zuzendaritzan parte hartu nahi duzuenak hasi zaitezketen pentsatzen zuen izenak emateko, animo!!!
- Nahiko errepikakorra den arren, berriz ere gogorarazi nahi dizuegu, zuetako askok oraindik ez duzuela ARGAZKI eta DATURIK ekarri bazkideen karneta berria egiteko. Oraindik ere garaiz zabiltzate eta datuak jasotzen goazen heinean, karnetak egiten jarraituko dugu hemendik.
- AURRERA EGUNA. Gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da eta horregatik finkatu da, betirako urriko lehenbiziko larunbatean egingen dela. Aurten ere, zuen parte-hartzea espero dugu. Dena dela, informazio gehiago eta egitaraua aurrerago emango dizuegu. Egun honetan, aurreko urteetan bezala, falta diren karnetak banatu nahi genituzke.
- Gehienak ezagutuko duzuen Nafarroako Aurrezki Kutxako "ZEUK AUKERATZEN DUZU, ZEUK ERABAKITZEN DUZU" proiektuan jende askok parte hartu du aurten ere eta eskerrak eman nahi dizkizuegu hemendik, bertan parte hartu duzuen guztioi. Dena den krisi egoera dela eta urtetik urtera jasotzen dena gero eta gutxiagoa denez, denoi ahalegin berezia eskatu nahiko genizueke, aurten zuen aukeraketa Aurrerak antolatzen dituen ekimenetarako izatea, benetan eskertuko genizueke, horri horrela izanen balitz.

Aipamen berezia egin nahi diegu, nola ez, Aurrera K.E. osatzen duten komisio guztiei. Urtean zehar antolatu ohi diren ekintzak herriari zuzentzeko asmoarekin eginak izan ohi dira eta hau ez litzateke posible izango zuek guztiok gabe. Aipatu ere bai, babesle eta laguntzaileen ekarpenak eta lana. Beraz, MILA ESKER eta ZORIONAK hemendik!

Eta amaitzeko nola ez, ZUEK (bazkideak) zoriondu nahi zaituztegu; zuen babes eta laguntzarik gabe hau guztia aurrera eramatea ezinezkoa izango bailitzateke. Zuei ere, MILA ESKER eta ZORIONAK!

**Festa alaiak igaro eta GORA SAN TIBURTZIO!!!**

**AURRERA K.E.ko ZUZENDARITZA**



# 32. zenbakia

## FESTETAKO GASTUEN ZERRENDA 2010eko aurrekontua

<b>PLAZAKO MUSIKA</b>	<b>7.200,00</b>
Trikidantz	1.680,00
Garraxi	1.400,00
Tximeleta	2.320,00
Mariatxia	1.800,00
<b>KIROLAK</b>	<b>7.000,00</b>
Pilota partidu profesionalak	1.500,00
Herri kirolak	4.000,00
Txirrindulari lasterketa	1.000,00
Pilota partiduak	2.000,00
<b>UMEENTZAT</b>	<b>4.948,00</b>
Puzgarriak (Keima)	1.000,00
Topagunea (tailerra)	500,00
Kukubiltxo	1.888,00
Goxokiak	300,00
Zezensuzkoak eta suziariak	1.260,00
<b>BESTELAKO PROGRAMAZIOA</b>	<b>18.093,00</b>
Zetzeria	1.770,00
Incansables Txaranga	7.000,00
Txarangakoen gizarte aseguratza + gestoria	3.210,00
Aurrerako Dantzariak eta buru handiak	1.500,00
Gaiteroak	600,00
Txistulariak	890,00
Bertso saioa	2.100,00
Castellers	Borondatez
Aulkien alogera	393,00
Pestetako opariak (paella lehiaketa)	300,00
Goitibeherak	2.100,00
<b>ZEZENAK</b>	<b>17.437,50</b>
Gizarte aseguratza	215,50
Mapfre (erantzukizun zibila)	4.477,00
Mapfre (listripuak eta baliezintasuna)	410,00
Asier Arrizabalaga (behiak)	5.000,00
Ukui luaren alokairua	290,00
Medikua eta erizaina+anbulantzia	4.665,00
Hondarra eta porteak	810,00
Hondarra biltzeko makina	280,00
Hesien mantentzea	1.000,00
Arkitektuaren hesien ziurtagiria	290,00
<b>OTORDUAK ETA OSTATUAK</b>	<b>14.500,00</b>
Santiburtzio eguneko hamaikakakoa	1.000,00
Otorduak eta ostatuak	8.500,00
Herri-afaria	5.000,00
<b>PROGRAMAK ETA PUBLIZITATEA</b>	<b>2.500,00</b>
Programa	2.300,00
Programaren azalaren lehiaketaren sariak	200,00
<b>BESTELAKOAK</b>	<b>7.222,00</b>
Kioskoen garraioa eta alogera	700,00
Komunen alokairua	2.600,00
Argi indarraren konexioa eta gastua	622,00
Sociedad General de Autores	800,00
Langileen aparteko orduak	2.500,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>78.900,50</b>

## Ze entzuten dugu?

Gure klasikoak, folklorikoak, Esne Beltza, Berri Txarrak, Bide Ertzean, Potekin, Su ta Gar, Gatibu, Mal de Ojo, The wski's, Betagarri, Anari, Petti, Sexty Sexers, Ken zazpi, Gari, Kerobia, Urdangarin, Gu ta gutarrak, Gose,... eta askoz gehiago dira azken urteetan indarrean dabilzan euskal kantagileak. Euskaraz izateagatik kantu denak ez dira onak baina kontrakoa ere ez.

Zori txarrez gure inguru ia dena betetzen duten hedabide erdaldunak sistematikoki baztertzen dituzte, batzu-batzuk beren burua zurrizteko edo ... noizean behin euskal kantaren bat jartzen badute ere, gehienak deusez. Folklore hutsa ez den euskal kulturarekiko oso gutxi aitortuko badute ere, boikotera eta mespretxatuak izatera ohitu gaituzte. Dena den ez da hau ni gehien kezkatzen nauena, beraientzako kalte! Gehien kezkatzen nauena Leitzan adibidez, bizi-bizi dabilen musika euskaldun askorentzat osotan arrotza izatea da, jendea dabilen tokitan oso gutxi entzuten baita. Ez zait iruditzen kasu honetan boikota, mespretxua edo antzeko deus dagoenik; gehiago iruditzen zait, besteak beste, lehenago aipatutako hedabideek eragiten dituzten moda eta joerak, marketina, etxekoa gutxiesteko daukagun joera (konplexu piska bat edo...). Kanpokoa beti hobeagoa denaren ustetan gure onena baztertu eta Alaska, Baute, O.T. edo antzeko esperpentuekin gure bafleak mandoa goraka botaz jartzeko gai gara. Bafleak eta... izorratuko ez dira ba!!

Kanta euskaldunei onak edo txarrak diren heinean merezi dutena baino askoz ere leku ttikigoa uzten diegulakoan naiz, hemen entzuten ez badira ere hauetako asko arrunt onak baitira.

Ez litzaidake gaizki irudituko, militantziagatik (gure kultura laguntzarren, kanpotik heldu den kontrako presioarekin orekatzeko eta abar) musika euskaldun gehiago jartzea, baino ez dut hori eskatzen. Hitz eta muska onez gozatze hutsarengatik naturalki dagokion lekua utziko bagenio, pozik nintzake. Jendeak entzuteko, kantatzeko, dantzatzeko edo puto-kasorik ez egiteko. Azken hauei ondorengo txosten zientifikoa irakurtzea komeni zaie, orain arte idatzitakoa nire iduittu eta nahiak besterik ez baitira.

\* Hau bai hau zientzi soil-soille da, beraz, arrazoi zientifiko sakonagoekin ez bada, iduittu hutsekin binipin ukatu ez dittekeena.

Donostia international physics centerrek, nazioartean ospetsuen diren unibertsitateetako hainbat katedradun eta nobelsaridunen laguntzarekin, NASAK jarritako baliabide tekniko aurreratuenekin, zapi urte luzez egindako ikerketen arabera, kanta euskaldunek besteak beste: Bafle eta gainontzeko tresnen bizitza nabarmen luzatzeaz gain, ozono geruzari, berotegi efektuan, bale bixigu antxoa onto eta abarren ugalketetan eta aztertu diren gai guztietan eragin ezin hobeak dituela frogatu dute. Adibidez: Stanford universityn sexugintzan katedra duen Nere Azpitarte Zabalak ikerketari egin dion ekarpenaren arabera, Fangoria, Bisbal eta antzekoak entzuteak gure larruterako abildadea %82,63an jaisten du, hau da: "asuntoarako" eskailu baten gise, hotz uzten gaitu. Aldiz edozein euskal kantaz ( Jeikirenak barne ) inguratute eote hutsekin gure larruteako abildadea %69,69an igotzen da, hau da: astarrak asta-iela sumatzen dunen bezalatsu jartzen gaitu (sasobe eta grinetan), forma, jarrera eta modutan ez, zehaztu du katedradunak.

Ongi izan eta pesta on denari.

Joxefe



## Pestetan Leitzeko ingurutxoa dantzatzeko gonbitea

Kaixo, irakurle! Behar bada, jakinen duzu aurtengo pestetan beste ingurutxo bat dantzatzeko dela Leitzeko plazan, Santiburtzio egunean, hain zuzen ere, eta bertan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizugu. Ez al zegoen bada, ingurutxoa sobe-ra ikusia lehendik? Ez, ez, gure ustez ez. Kontua da Leitzeko ingurutxoa Leitzak duen ondare handienetakoa dela, gurea den dantza bat dela, eta garai batean jende askok dantzatu zezakeela. Zenbait urtez, Aurrerak bultzatuta pestetan gauero dantzaten zen ingurutxoa, eta jende askok hartzen zuen parte. Zahar eta gazte, bertako eta kanpoko, makina bat lagun elkartzen zen eta festa zoragarria egiten zen. Horixe zen gure dantza bizi-bizirik mantentzeko modu onena, alegia, jendeak dantzatzea. Nahi zuten Leitzar guztiek ikasten zuten, eta honek indarra ematen zion ingurutxoari.

Urteekin ordea, ohiturak aldatu dira. Gaur festa taberna-zuloan egiten da, eta gaueko ingurutxoa egun bakarrean dantzaten da, hilaren 12an, hain zuzen ere, neurri handi batean Leitzeko txistulari eta dantzarien ahaleginari esker. Gaueko gainontzeko ingurutxoak iada ez dira dantzaten. Hori dela eta, gaur egun dantzatu nahi duenak, ez du aukera gehiegi izaten. San Juan Bezperako edo Umeen Eguneko ingurutxoan txikienek dantzaten dute. 12an gauean, goizeko 3tan oraindik kalean dabilzanek, eta Ezkonduen eta Bikoteen Ingurutxoan, hori, ezkondu eta bikoteek.

Horregatik proposatu dugu beste ingurutxo bat dantzatzea. Aurten froga gisara Santiburtzio egunean jarri dugu, iluntzean, 9-tatik aurrera, eta plaza betetzea espero dugu. Ez ikusleez, hori gutxienezkoa da, baizik eta dantzariz. Betiko ingurutxoko dantzariak gonbidatuta daude, baita ingurutxoa erdipurdi dakitenak ere, gazteak eta gazte izandakoak, Leitzarrak edo ez, denak daude gonbidatuta. Gure herriko dantzari eta dantzari ohi mordoska inguratuko da behar balitz dantza zuzentzeko, eta laguntza horrekin ikasi nahi dutenentzat ere izanen da nori begiratu. Jendeak erantzuten badu, eta festaren eta ingurutxoaren onerako dela ikusten baldin badugu, datozen urteetan iluntzeko ingurutxo honi eusten saiatuko gara, bai egun bakarrez pestetan, edo jendeak hala nahi balu egun bat baino gehiagotan. Aspertua zarela ingurutxoaz? Lasai, ez azaldu plazara. Gure herriko dantza gus-tokoa duzula? Animo, zatoz plazara eta elkarrekin dantzatzeko dugu. Besterik gabe, Santiburtzio egunean iluntzerarte. **Pesta onak pasa!**

**Leitzeko Ingurutxoazaleak**

# PLAZAOLA aldizkaria

Zuri atte...

Ez da pasatzen egun bat bera ere zutaz oroitu gabe  
Orain dela zazpi urte utzi gintuzun baina zure presentzia somatzen  
dut nere ondoan, gure ondoan, gure txokoan...

Zure mendi kuttunen artean somatzen dira zure pauso ixilak, zure  
begirada kuriooa, alaia, beti ikasteko prest, beti erakusteko irrikaz!

Duela zazpi urte zure lagun batzuk, Iñaki eta Anttonek, zuri  
buruzko idatzi unkigarri bat argitaratu zuten; gaur, hitz eta argazki  
horiek nere eskuetan ditudalarik nere ondora etorri zara, gure  
ondora... beste behin ere.. ta hementxe familia, eserita etxe atarin  
bizitza bat errepasatuz... mendia, mineralak, etxeakoak, eskola,  
umeak, lagunak, ikatza ta karea...

Ta zure bilobak hortxe, jostaketan, kontuketan, irriparez zuretzat  
loretxoak bilduz...



Basagain (Anoeta).  
Indusketa lanak  
1996. urteko iraila,  
Aranzadi zientzia  
elkartearekin.



Karalurregiko txondorra (Oiartzun, 1995eko  
azaroa)

Joxe lohia biltzen,  
Sarobe errekan,  
1996. urteko urrian,  
Oiartzun.





Joxek txondorra suna zuen bere etxe ondoan (Leitza, 97ko urria)

A. Itxeta

## Joxeren suak bizirik dirau

Joxe Sagastibeltza, mendiko maisua

Laurogeita hamazazpiko udaberriko egunsenti hartan goiz-argi distiratsua baino argiago jarri genuen Azkorrin bordako sukalde zaharra. Ai ze poza eta ilusioa, han eta orduan hasten baikinena gure azken berreskuratze proiektuan, hau da, lihoaren lanbide galduan. Zein ondo konpontzen ginen hainbeste proiektu berreskuratzaile lanetan! Errosarioaren aleak bezala: karea, sagardoa, artazuriketa, txondorra, eta orain, lihoa. Gure proiektuak sortu, hazi, hezi eta lortubidean eratuz, gure bizitzaren katea sendotzen zuten.

Baina halako batean, patuak nahi zuelako edo... goiz eder hura goibeltzen hasi zen, sukalde distiratsua tristetzen hasi zen. Noizbait, gure lagun Pello betiko joana ziztzaigun. Geroxeago, Itakolo lagunak alde egin behar izan zuen. Eguraldiak, honezkero zeharo aldatua, eta laino beltzez zerua estalirik, sukaldetxoa ia ilundurik, kandelatxoa piztera behartu ginetuen; halakoxe estutasun arraro

bat somarazten zigun gure bihotz barruetan. Orduak aurrera, tximist-argi batzuk ere ikusi ginetuen laino beltzen artean. Halako batean, izugarritzko danbada somatu genuen, trumoiak zen, baina ez zirudien gure gainean jo zuenik... trumoi hotsa tximinitik Azkorringo sukaldera sartu eta, hango denetaz jabetu zen, tximista beldurgarri bat lagun zuela. Une batez, itsu, gor eta mutu utzi ginetuen...

*Isiltasuna...*

*Itzalia zegoen kandelatxoa berriro piztu genuen.*

*Eta, beste bat falta genuen.*

*Joxe! Joxe!*

*Ederra egin duzu horixe!*

*Zu aldean libre*

*eta gu hemen beti zure gose!*

*Zure presentziaz ezin ase!*

*Txondor eta karobiaren azkeneko bezalaxe joan zara, Joxe!*

Joan egin zara, isil-isilik, ia ezertxo ere esan gabe. Hortan ere isila eta

apala izan zara. Ez adio, betirarte esateko une garrantzitsu honetan ere ez duzu protagonista sentitu nahi izan.

Dagoeneko ekaitza lasaitu da, il-beherako gauaren argi ilunak triste utzi du Azkorrin bordako sukaldetxoa. Gelditzen garenok gurea joatea pentsatu dugu. Kandelatxoa itzali, ateak itxi eta bakoitza gure bidetik abiatu gara, bakarrik gure destinora.

Triste, kopetilun, bihotza estu, negar malkoak begietan. Garrasi handi batez galdera bat egin nahi eta ezin. Zergatik? Noiz elkartuko gara?

Azkorrin bordako sukaldetxoa han gelditu da atzean, gau ilunaren atzaparretan, amets gaizto bat bezala.

Eta gu, aurrera, bihar berriro lanean hasiko gara. Denok berdin jarraituko dugu, baina ez da ezer berdina izango.

# PLAZAOLA aldizkaria

■ A. Irueta



Goian, liboa biltzen Sarobe-Errekan (Oartzun, 97ko urtaria); behean, libo-soroa simurtzeko prest (Sarobe-Erreka, Oartzun, 96ko urria)

## Nor izan da Joxe

Joxe Sagastibeltza Lasarte 1927-an jaio zen. Bere gazte denbora garai hartako baserrietako gazteen antzekoa izango zen: baserriko lanetan lagundu, eskolara joan, ohiko jolasak... Joxe nahiko goiz hasi zen, baserriko lanekin batera, mendiko lanetan. Seguraski, orduz geroztik zetorkion naturarekiko zeukan begirunea. Urteen joan-etorrian, orduko eskoletan ikasi ezin zitezkeen gauza asko eta asko ikusi eta ikasi zituen bere eguneroko bizitza-praktikan: zuhaitzak, belarrak, harriak, mineralak... bere jakintzaren osagarri izango zirenak. Inguruko lurraldea ere (mendixka, errekek, bailarak...) gazte-gaztetatik ondo ezagutzera iritsi zen, txoko guztien

berri izan eta guztiek zeuzkaten ondare adierazgarrietaz jabetuz (burniolak, karobiak, mehazuloak, errotak...), jende arruntarentzat ezezagunak ziren erakuntzak. Mendiko eguneroko bizitzaren unibertsitatean egin zuen Joxek doktoretza. Bere eskarmentuz ikasitakoa besteoi erakusteko grina izan zen Joxeren meritu izugarria. Eta gaur normalak iruditzen zaizkigun gal asko, Joxek atera zituen izkututik argitara.

Leitzara ezkondu eta Leitzarako bidean dagoen Eguzkitza antzina-ko eskola-etxean bizitzen jarri zen eta familia bat atera zuen aurrera. Urte askotan, Leitza udalerriko basozaina izan zen. Naturarekiko lanbide honetan ere asko

ikasi zuen Joxek, eta gehiago irakatsi oraindik. Esan daiteke aro honetan eman zela gizona eta naturaren arteko txertaketa oso eta aberatsa, bion gauza on denak trukatu ziren denboraldia.

Erretiroa hartu, eta hala ere ez zion utzi lanari. Eskoletako atezain moduan ihardun zuen. Garai honetan hasi zen Joxe ordurarte bere lanak uzten ez zizkion afizioak lantzen. Hortik aurrera hasten gara Joxe ikertzaile, autodidakta, ezagutzen. Bere mailua eskuan zuela, kolpez kolpe, harri eta harkaitz miatuz, hasten da Eguzkitza etxeko "museotxo" erakitzen. Zenbat pertsona pasatu garen txoko horretatik bitxi horiek ikusiz eta bere adierazpen zuzenak entzunez! Eskolako zaintza utzi eta buru-belarri sartu zen beste proiektu batzuetan, bereziki mendiaren inguruan egin ohi ziren zenbait lanbide galdu berreskuratzen. Harria, egurra, ura... Joxek horren ondo ezagutu zituen materialek paper funtsezkoa jokatzen zuten lanbide-galdu horietan. Ordukoak izan ziren Joxek burututako txondor eta karobi-lanak.

Joxeren azken etapa emankor eta aberatsenean sartzen gara. Beste herrialdeetan, bera bezalako proiektuetan dabiltzan talde eta pertsonekin harremanetan jartzten da: Dimako Laratzu, Etxebarriako Txerkaratz, Iruñeako Gorosti, Zeanuriko Ipizki, Aranzadi Zientzi Elkarte eta Oartzungo OBIE (Oartzun Bailarako Izadi Elkarte). Aranzadi Zientzia elkarteke Prehistoria saileko laguntzaile zintzoa izan da. Indusketa lanetan parte zuzena izan du: Intxur, Boluntxo, Basagain, Buruntza eta abar. Xabier Peñalver eta Sonia San Jose arduradunek asko estimatzen zuten Joxeren presentzia eta laguntza. OBIE taldearekin, berriz, honako proiektu hauek dira aipagarrienak: Arpideko karobia (1994), Karalurregiko

Antton Iztueta

txondor haundia (1995), Sarobe-Errekako liho-soroa (1996) eta Arritxulegiko txondorra (2002).

Arritxulegiko txondorraren despedidako afaria egin genuenean ez genuen uste horren azkar utziko gintuenik Joxe lagun minak. Handik hilabete gutxitara (2003-ko apirilaren 13an) hil zitzaigun Joxe.

## Lehen topaketa

1994ko negua. OBIE elkartea hor dabil Oiartzunen berreskuratze lanean galdutako horrenbeste aztarna jaso nahian: toponimia, historia, ohiturak, lanbide galduak eta abar dira OBIEren helburu nagusiak. Arlo batzuetan lasai dabil eta bidea argi ikusten du; beste batzuetan, nahi eta ezin: ezjakintasuna nagusi, desgertutako lanbideetan bereziki. Baina, OBIEko taldekideok, ez genuen inoiz etsi: esperantza hor zegoen beti. "E, lagunok! Plazaolako trenbidearen ondoan kareea egiten ari duk Leitzako gizon bat! Bihar, hara joan behar diogu!"

Goizuetako gure lagunengandik zetorren abisua. Otsailleko larunbat hotz bateko goizaldean abiatu ginen Goizuetara. Han lagunak jaso eta Leitzara. Joxe Sagastibeltza Leitzakoa omen zen kareea egiten ari zena. Hura gure kuriositatea! Zer ikasiko ote genuen han? Azkenean, beterik ikusiko ote genituen Oiartzungo gure ametsak? Plazaolara heldu ginenean, karobi bazterrean piztuta zegoen su beroak gozatu zituen gure gorputz hotzak. Suaren egilea nolakoa zen, besterik gabe jakin genuen eta hitzak soberan, karobi zaharraren hormen berotasunak eta suaren argiak gure ordez hitz egin zuten eta une hartan heriotza arte etengo ez zen adiskidetasuna sortu zen mirakulu bat bezala: Joxe eta gu. Gero, aurrerago, gauza gehiago jakin genituen Joxeri buruz, baina bat bereziki: sua eta Joxe. Sua Jo-



Goian, Joxe taloak prestatzen Karalurregin (Oiartzun, 97ko ekainak); behean, Karalurregiko txondorra (Oiartzun, 95eko azaroak)

xeren bizitzan konstante bat izan da. Sua beti lagun, beti aldamenen. Suaren beroa, Joxeren arnasa. Eta berak zer esan ez zekienean, suak hitz egiten zuen bere ahoz.

"Lagunok! Oiartzunen kareea egingo diagu! Joxek egingo dik!" pentsatu genuen denok batera. Eta goiz hura pozez pasatu genuen erromeri batean bageunde bezala. Han zegoen udaleko ordezkaria, han zegoen erretorea, han Joxe eta han, gu. Gosari eder batekin bukatu zen goiza eta adiskidetasunari hasiera eman. Handik aurrera proiektuak errazago bideratu ziren gu denontzat.

Eta horrela bizi izan ditugu Joxerekin hainbat une gogoangarri azken urte hauetan: Lekeitioko zi-

nemaldiko sari-jasotzea, Baztan eta Goizueta aldera egindako ibilaldiak, Oiartzungo adiskideekin egindako otordu eta egonaldiak...

## Agurra

Joxe! Askok zor dizugu! Beti izango ditugu zutaz oroitzeko arrazoiak. Ez zara erraz alenduko gugandik. Eta guk, zer esan? Zuk eraikitako bideari jarraituko diogula. Gure pena, zugandik gehiago ez ikasia. Gure erronka, zu gabe umezurtz, proiektuei aurpegi eman beharra. Agur, eta eskerrik asko, Joxe!

Oiartzunen, 2004ko otsailaren 7an  
Oiartzungo OBIE taldeko  
zure lagunaren izenean,  
Antton Iztueta eta Iñaki Arbelaitz

## Orantzaroren usadioa Leitzan

### Etxeko oroitzapena

Aspaldi ikasi genuen guk orantza-aroa zer zen: amak askotan esaten baitzigun gure herrian nola paratu izandu diren orantzar-egunean, eguberri bezperan, muñekoak edo panpinak balkobe eta lehioetan. Haren txiki denboran, usadioa bizi-bizirik zegoen gure herrian, eta haiek ere, gehienek bezala, urtero paratzen zuten panpina. Honatx nola azaldu zigun amak, orain hurrena, orantzar-oroaren kontua:

"Nik uste pesta hori betidandik in izandu dela hemen, Leitzen. Gu ttikik giñela, Inaziobarunen, izoa Mariajesusek itten tzun, ta hark emakumea patzen zun, beti. Be-dea: manikie jantzi (yostunek izakio gu eta) soñeko politt batekin, abrigon bat-edo gañetik; burue telazkoa in, Leitzen hala itten zen burue; ezpañek tela gorrikin yosi eta begik beltxakin, eta sonrero haundie pamela modukoa-edo patute burun. Terrazan patzen giñun eskun zera bat zula, linterna-edo, argitasune ittekoa. Yakiñe, zazpitako illune eotten tzen da, estaziotik heldu zen jende ikus-teko modun...Ta, ez pentsa, etxe gehiotan e patzen tzen, Orantzaroa, emakume-jantzin: "Ojalateroanen", Dendarinen, Unainen, Artxikonen, Karmenenen... Ta gehiotan e bai Orantzaroa patu: Txatxunen; Martxenen; Aspaiñen, han Gaztelunak ehiztarie edo arratzalea edo; Ontsalunen..."



María Jesús Sagastibeltza, Inaziobarunen, amaren etxean, Orantzaroa apaintzen zuena.

Hamaika aldiz adituak gara etxean kontu hori baina aintzat hartu gabe. Edozein moduz, amaren kontu horrek harritu egiten gintuen izugarri: Orantzaroa, emakume-jantzin? Eta, gainera, etxe dezentetan ere igualtsu patzen omen zuen. "Alajaina! Ez al da, ba, Orantzaroa, ikazkina, xahar, itsusia?"

### Leitzarren oroitzapena, dakitenen testigantza bizia

Hari horri tira egitea erabaki, eta aztarrika hasi ginen: inguruko ezagunei galdetu eta; hortaz gehien dakitenei, gure jakintsu adindunei, ongi azaltzeko esan eta; liburu-

tegira joan eta, Joseluisen laguntzaz, horri buruzko liburuak hartu eta...

Hala, behinik behin, galdezka hasi eta, gure amak adierazi bezalatsu, oso antzera, gogoratzen zitzairen orantzar-oroaren gaia gainerako herritarrei ere; alegia, **Orantzaroa, Leitzan, betidanik, etxe askotan eta urtero patzen zela**, itxura desberdinean, **emakumezko-jantzian nahiz gizonezkoarenean**. Hala adierazi digute herritar eta bordari (baserritar) askok: Artxikonekoak, Dendarinekoak, Aliñekoak, "Herreroanak", "Josehaundinak", Sorokoak, Unainekoak, Barungoak, Urtotxikikoak, Gazpillotxikikoak, Atsotietakoak, Ojalateroanak, Auzmendikoak... Hona, konparazio baterako, Sorokoen oroitzapena, xume eta goxo hartu gintuzten haienean otsailean, eta Joxemielen omenez balio dezan senar-emazteen azalpen zoragarri honek: *"Sekule guzin izandu da hemen arantza-aroa, beti izautu giñun guk, ta gure aurrekoak e bai. Eta gaña itten tzien batzuk emakume-jantzin eta bestek gizakinen: Ojalateroanak ostatue zuen eta han patzen zuen, eta beti emakume-jantzin haik. Guk gizona in izandu du, Orantzaroa gise: galtza urdinek, goien batzutan ardi larrukin eta bestetan bruxekin; zapela, pipe, eta belakin bizteko linterna eskun. Gero, pardel ttiki bet, makilen puntan. Leiho baten patzen giñun edo ganbarako sapaien. Eta, asko itten tzien ordun..."*



1988. urtean, Bakartxo, Miren, hankalepoka haren semea Beñat, Mila, Orantzaroa eta Arantxa (Itziar Azpirotz).

Eta bordatan-eta? (baserritan?) Aditzera genuenez, ez zen orantza-arorik ospatzen, ezta panpinarik patzen ere. Bai ba, horratx! Baserrietan ere patzen zen: nonahi, gainera, garai batean. Hala, bati eta besteari galdetuta, badakigu patzen zela honako hauetan: Atsotietan, Barunen, Errezumen, Tutenen, Auzmendingin, Olason, Gazpillotxikin, Urtotxikin, Astibin, Garagartzan, Martikonen,

Xerorenbordan, Kordaunen, Gorritzen, Indinabordan, Joanabordan...Hortaz, esan genezake gure herriko auzo guzietan usadio hori bizirik egondu dela, lehenago

mendean eta aurrekoetan ere bai, aita-amek eta xaharrek gogoan dutenez, haien aurrekoei ikasita.

Joxakin Atsotietakoak, gizon prestua izakio, bere etxean hartu gintuen eta honelaxe adierazi zigun, goxo eta garbi, orantza-aroaren kontua: *“bordatan e patzen tzien Orantzaroak. Bai, bai, nonahi patzen tzien hemen, Gorritzanen eta. Batzuk gizaki-itxuren, ittaiekin edo bizkarren sega zeukela, edo; ta beste batzuk, berriz, emakumenen, josten edo, gonakin de pañuloakin, puntue itten bezala... Guri atte zenak erakusten tziun ganbarara eramanazite ikustea; beidea, ze gizona dabillen ganbaran... Ta hantxe Orantzaroa, belar pillen ondoan, muñeko haundi bet...”* Gainera, herrian ez bezala, baserrietan Orantzaroa haurrak ikararazteko erabiltzen zen: umei-eta esaten zitzaizkien Orantzaroari buruzko kontu itsusi samarrak; tximiniatik jaitsiko zela, erne ibiltzeko, txintxo portatzeko, gainerakoan Orantzaroa sartuko zitzaielara, Orantzaroa tximiniaren ondoan patuta...



Orantzaroa segarekin eta (Mikel Illarregi)

## Iturri idatziak eta etnologoen aipamenak

Baina hori hala bazen, eta betidandik, idatzirik ere beharko luke zerbait. Ba ote? Bada, gure orantza-aroari buruzko aipamen idatziak ere bereziak dira hagitz, eta argitzen digute hemengo orantza-usadioa eta bere berezitasunak.

## Artxikonekoa

Bertatik hasi ginen, Plazaola aldizkariekin hasi ere. Eta zer topatuko eta, 1986ko plazaolan Artxikonekoak, Maria Jesús Gogortzak, idatzi zuen *“Otterari eutsi naiean”* artikulua. Haren idatzi eder hark herriko orantza-aroaren berri ematen zuen, eta bertakoaren aldarrikapena egiten. Hona laburpen txiki bat:

*“Aspalditik aierrak nengoen, gaur idazten asi naizen idatzi au, azaltzeko... Orantzaroetaz daukat esan nai bat. Leitzako Orantzaroak bado berextasun aundi bat, besteetatik: emen balkoben, sapaian edo leioan patzen baita...eta Orantzaroa egiten zen eguberrikin zerbait ikusteko zuna, edo, inguru ortan sortu zitteken gertaeraren baten berri, adierazten ziguna. Etzen prezisoa, attun*

*potzolo, pipedun, brusez jantzirik egitea. Ain ongi ematten zun emakumezko bat, bere saxkitxotik ollasko buru edo bixigu buztana agiri zetziola. Baita traje, kor-bata ta guzi, gabardina besoan zula. Sorgiñek ere bazuen ittekorik. Gure mitologian eguzkin eta illargirkin artu emana aundie due, ta Gabonak aproposak die ortako, olakoak izaten zien Leitzako Orantzaroak, denak ezberdiñek...*



Ganbarako sapaian eta halaxe patzen zittuen Orantzaroak, zintzilik. (Itziar Azpirotz)

## Patziku Perurena

“Orantza berria” artikulua Jose Luis Uhartek eman digu liburutegian. Patziku Perurenak idatzia da. Honatx xipi bat:

*“Leitzan eta beste herri nafar askotan hala esaten baita: Orantzaro; eta bete betean letorke, Orantza-aro hitza ere, triperotzarako edo haragia harrapazka jateko garaia adieraztera”*

Patzikuk dioen orantza hitza gure herrian bizi-bizirik dugu oraindaino: bizkotxoa egiterakoan zer botatzen diogu, ba, harrotu dadin? Eta ogiari?

Eta aroa hitza? Leitzan denbora edo tenorea zentzua du; eta ausaroa, gaztaroa eta horietan ere esanahi horixe du.

## Joxe Migel Barandiaran

Printza bat bederen eman nahi genuke Joxemigel jaun handiaren lanaz. Hona, haren azken hiztegi mitologikoan zer dioen orantza-aroaz:

*“Lezoko Isasti historialariaren arabera, XVII. Mendean onenzaro izenak eguberria esan nahi omen zuen, eta hitzak “sazón de los buenos” esanahia luke. R.M. Azkuek ere esanahi bera aitortu zion Euskalerrriaren Jakintza bere lanean.*

*Hitzak aldaera asko ditu: Olentzaro Olentzero Orentzaro Zarautzen; Onentzaro Orantzaro Zalantzarik ez dagoena zera da; Olentzaro aro bat dela.*

*Leitzan, Oiartzunen eta Lesakan eta Arakilen, lasto eta trapukin egindako manikia da. Bizkarrean hartuta eramaten dute eguberrietako eskean, haurrak egunez eta larriak gaez.*

*Larraunen tximinian paratzen dute, zapela buruan eta ittaia eskuan, oilar-meza bukatu arte. Leitzan, Lesakan eta Arakilen lehioan patzen dute.*

# PLAZAOLA aldizkaria

*Orantzaroaren ohiturak San Juanekoakin eta solstizioarekin antza handia dute eta indoeuropako lurraldetako errito magikoekin lotura zuzena du.*



Orantzaroa zatoarekin, piparekin eta (Mikel Illarregik utzia)

## Julio Caro Baroja

Barojak ere landu zuen gai hori. Ikusi zer dioen *“Euskal Jainko eta Jainkosak, Olentzero eta Sorginak”* bere liburuan gure gaiaz: *“Orantzaroa era askotara egiten bada ere, suarekin beti erlazionaturik. Leitzan (Nafarroa) Gabon egunean -diosku Barandiaranek- etxeko leiho edo balkoietan lastozko panpina jartzen dute, galtza edo gonaz jantzita, eta honek, bertakoen esanetara, Orantzaroa irudikatzen du.*

## Jesús Satrústegui

Satrústegik ere antzera jaso zuen Leitzaren berri *“Solssticio de Invierno”* lanean: *“Abenduaren 24an Leitzako etxeak belarrez eginiko panpin batez apainduak azalduko dira, gabeko diseinatzailearen gustuaren arabera. Inguruko herrietan ez bezala, Leitzako Orantzaroa inoiz ez da bortitza izandu eta bazuen gainera detalle edo portaera zintzoa herritarrekiko. Orantzaroak orantza zekarren ugari, irinekin nahasteko eta etxeetan ogirik falta ez zedin arduratzen zen (Dolores Baleztena, Sasaki-Naski de Leiza “Temas de cultura popular”).”*

## Ondorioak

Orantza-aroa Leitzan betikoa da. Ahozko testigantzek garbi erakusten diguten bezala, herriak usadio horri deanean eutsi dio bizirik, duela gutxi arte. Idatzi ere adituek egin dute horri buruz. Etxe eta borda batzuetan azkeneko gizaldian badirudi galdu zaigula, eta batzuen oroitzapen eta testigantzetatik ikusten da arrazobea zein izan daitekeen: gutxietsi, baztertu eta garrantzirik gabeko zera bezala ikusten zuten batzuek. Askotan gertatzen den bezala, etxeko “ohitterak” aitzat hartu ez, eta berriekin liluratu. Hala eta gutiz ere, orantza-aroa Leitzan aspal-

diko ohitura berezi eta bizia da. Gure aita-amek eta aiton-amonek kabalgata zer zen ere ez zekiten garaietan, Leitzan Orantzaroa patuko zizuen etxean eta gaztainak edo axuri-buztanak edo zerbait berezia janen, suaren inguruan...



Orantzaroa, Artxikonen, suaren ondoan, garai bateko erara egina; burua oiha-lezkoa-eta (Maria Jesusek utzia)

Bestalde, gaur egun, esan liteke Orantzaro guziak berdinak direla, hemengoa edo beste edozein herritakoa; ez baitago alderik, apenas, herritik herrira. Dena den, guri tradizio berezi bitxi hori bizirik iritsi zaigu, eta saia gaitezen, behingoz, pobretu beharrean, ohiturari eusten eta aberasten...

Faltzesen, konparazio baterako, duela 25 urte hasi ziren orantza-aroaren festa ospatzen, eta orduz geroztik ezagutzen dute hangoek gure ohitura hori. Han, beraz, normala da eredu estandar bat hartu izana, jakina, haiek ez zuten bertakorik deus eta arruntena-edo hartu behar. Baina, hemen, Leitzan?

Orantza-aroa, Leitzaldean bezala, badirudi inon ez dela inoiz irudikatu, eta horrek berebiziko garrantzia du. Nortasun eta aberastasun ikaragarria izandu dugu solstizioaren inguruko festa horretan. Dudarik ez dago, horrelako ohitura bereziren izan balute inon, Tolosan esaterako, honezkero mundu osora zabalduko zuketela. Eta gu, berriz, herrian bertan lotsetan bezala... Gailentzen ari den eredia, Lesakakoa-eta, alorra jaten ari zaio hemengoari. Eta gurea? **Non gelditu da hemengo usadioa? Hemengo sorgina? Leitzako neska dotorea? Gorritaran aldeko orantzaro-jostuna? Erasote aldeko tximiniko Orantzaroa?**

## Etorkizunerako proposamenak

Gizarte orokor globalaren *tsunami* horri aurre egin eta aniztasunaren eta aberastasunaren alde egin beharko litzateke, etxeakoaren alde. Gure kultur aberastasuna akabatzen ez genuke utzi behar. Xaharren ondarea zaindu eta babestu beharko genuke.

Hemendik aurrera, beraz, honakoak egin geni-tzake, Leitzakoari, geureari, eusteko:



## 1. Orantzaro izena erabili

*Izena duen oro izana du euskal esaera zaharra dugu. Arestian aipatu ditugun historialariek, idazleek eta etnologoek babesten dute orantza-aroaren esanahi hori, eta gure bertako hizkerak berak ere bai.*

*“Lesaka eta Euskal Herriko olentzeroren tradizioa liburua” irakurtzen baduzu ikusiko duzu: Leitza ez da ia-ia existitzen eta *Olentzero* Lesakakotzat jotzen da, eta hala dela aldarrikatzen dute hangoek. Jakina, **Leitzan ez baita olentzerorik, orantza-aroa baizik, alegia, aro bat berezia, solstizioarena, eta aro hori irudikatzen giza-irudia, gizon-jantzian nahiz emakumearenean.***

## 2. Orantzaroa patu, irudikatzen era desberdinetan

Etxe askotatik desagertu da orantza-aroaren ospakizun guziaz: **batez ere emakumezkoa patzearena.** Hamar urte edo badira emakume-irudirik ez dela ageri orantzaroarako. Bestela ere, etxe batzuetan duela 50 urte arte edo patzen zuten, eta orain, berriz, batez. Berreskuratzeari ekiteko tenorea da.

Nik, behinik behin, garbi daukat zer egin behar dudan aurtengo orantzaro-egunean: gure aurrekoek egiten zuten haren antzeko Orantzaroa prestatu, amari-eta laguntza eskatuta.

## 3. Orantza-aroaren berri zabaldu, herrian, etxean eta eskolan

Gure usadioen gaineko informazioa zabaldu behar da, erakutsi gure herriko bizimodua nolakoa zen eta egungo garaietara egokitu.

Azkeneko eguberrietan, *“OLENTZERO ez sexista!”* izeneko papera ailegatu zitzaigun etxera. Bien bitartean, Leitzako hainbat emakumek Orantzaroaren gainean galdetuta hau zioten: *“Gure izoak hala itten tzuen Orantzaroa, emakume-jantzian, beño uain lotsa re ematte do esatea. Guk hala izaute giñun beño, gero asi zien esaten ez zela hala, ta horratx! Bai, patu giñun lehenagokoek bezala duela 20 urte edo beño, hau esaten zuten: hori ezta Orantzaroa, ze patu duzue hor! Sarik ematten ai zienak esan tzidean; beño nola okurrittu zatzo emakomea patzea?...”*



Orantzaroa Amaiurren (Garbiñe Alemanek utzia)

## 4. Orantza-aroaren gaineko lanarekin segitu

Orain, joan deneko bizpahiru urtetan bezala, aurrerago jotzea eta aurrerapauso gehiago ematea litzateke egokiena: Aurrerak eta kultur taldek eta nahi duten guzietan gaia lantzen segi lezakete. Hala, besteak beste, denon artean lortuko dugu:

- **Ikerketarekin segitzea eta gaian sakontzea**, bere osotasuna kontuan hartuta: irudikatzen erak, etxeetako erregistroa; hari buruzko kontuak, kantuak eta usteak...

- **Hitzaldi edo jardunaldiren bat antolatzea**, udazken aldera edo.

- **Emaitzeekin lan mardul bat egitea**, irudiekin, argazkiekin eta biltzen ari garen informazio guziarekin. Herriarteen esku uzteko gure herriko kultur-aberastasuna.

## Akabera eta esker ematea herriari

*“Ez dakit ze arrera izanen duen nere idatzi onek, baño pentsatzen det, oraindik zuzendu ditteken bidean ote gauden”. Hori zioen Artxikonekoak 1986ko bere idatzi hartan. Hori bera esan dezakegu, lasai asko, orain ere.*

Bukatzeko esan dezagun zuetako askok, dagoeneko, lagundu diguzuela galderak erantzuten eta erretratuak ematen eta abar. Ba, jaso ezazue gure eskerrik beroena, bihotz-bihotzez! Pako Olano, Garagartzakoa, eta Joxemigela Zabaleta, Sorokoa, joan zaizkigu eta gure oroitzapenik maitagarriena haientzat eta beren familientzat.

Bestalde, jakizue ondoren ere zuen laguntza beharko dugula, eta estimatuko dizuegula; izan ere, zuen laguntzarik gabe, zuek dakizuen horrenik gabe, ezin baitugu deus ere egin...

**Pestak ongi irago, eta sarri arte!**

*Fernando, Itziarren semea*

## Guratz mendi barrena; aukera ezberdinak emanaz.

lazko Plazaolan, Leitzako inguru honetan egin daitekeen ibilaldi baten deskribapena egin nuen eta beste ibilaldi batekin jarraitzea politta izan daitekeela sinetsita, hementxe doa bigarrena. Joan den urtekoa Sarasaingo itzulia izan zen eta 2h eta 45´ko iraupena zuen, aurten azaltzen dudanaren antzeko; 2h eta 40´ gutxi gora-behera oraingo honek. Honekin adierazi nahi dut, denontzat egiteko modukoak direla, nahiz eta, tarteka, izerdi be-roak bota.

### Ibilbidea

Ohi den moduan herriko plazatik aterako gara eta Manuel Lasarte auzorantz joanda, "Areko-zubi" igaro eta industrialdean ezkererantz eginen dugu. Landako eraikuntza pasata, Gaztelu iturgintza dendara iristen gara. Bertatik gorantz doan bidexka hartuko dugu.

Paraje honi Lenitz deritzo. Inguruartetik datorren pista-rekin bat egiten dugu ataka biribila igarota. Burdinazko ataka hau Fraxku Azpirozek egin zuen duela 75 bat urte. Itxura denez, garai hartan, Aresoarte inguru horretan, beste bat ere egin omen zuen.

Handik aurrera, egun, Leitza-Lenitz berritutako borda da aurkitzen duguna. Ezkererantz buelta osoa eginda aurrerantz eta zig-zag eginez Eltzetako Arrobie deitzen den malda gogorrari gorantz ekinen diogu.

Hemen, beste toki askotan bezalaxe, bidea ez da bakarra eta horregatik garaiaren arabera, norberak aukeratuko du nondik joan, kontuan hartuz, ixtordiaren barrena gorantz joan behar dugula beti.

Halako batean lehen pista batekin topo eginen dugu, baina hau zeharkatuko dugu, lizar batzuk dituen bigarren pista batekin topo egin arte. Dagoneko 25´igaro ditugu plazatik atera garenez geroztik.

Ezkererantz hartuta pista lasaian barrena Okabio aldeko pagadian murgilduko gara laster.

- Hona iristeko, lehen malda gogor hauek ekidin nahian, hasierako industrialdeko bideari jarraituz, Gorritz enpresako eraikina arte joan behar dugu eta handik gora eginez, Aresoarte atzean utziz, Errementaneko bidea hartu behar da eta Txurin bordako bideari jarraituz aurrerantz eginen dugu garbia den bidetik.

- Hemen, Okabioko Irupagoata eta Soromearreta gainen azpialdean aurkitzen garenez, hauetara igotzeko eta zeharkatzeko aukera ere, badugu.

Pagadiaren barrena, lasaitasunaz gozatzeko aukera ezin hobea aurkitzen dugu. Bidenabar, eta egia da, txorien kanten erritmoek bideko aldapa zelaitzen dute.

\*Odionera iristeko aukera badugu pagadiaren zelaigunera iritsita. Ezkererantz begiratuta, ehun bat metroa herriaren ikusmira paregabea aurkituko dugu.



Tranpatxo parez pare. Ansolitz atzean.

Astobiaga maldaren azpialdetik goazelarik, niri behintzat, Leitzaldean, kasik gehien gustatzen zaidan xendatik barna aurreratzten dugu. Bertatik Tranpatxo pare-pare



Errotako malda igo ondoren atze aldera begiratzeak merezi du.



Odionetik Mugako lepora Astobiaga azpitik doan xenda zoragarria

ikusten da. Tartean Kordaungo errekek sortaraziko zuloa sumatzen da gure oin azpian. Kandeletxe aldera begira, honen gainetik Akutio aldea ikustaten da, han amaieran Ansolitz eremua zehazten dituzten haize-errotak nabarmentzen ditugula, eguraldi garbia egokituz gero, noski.

**\*Hemen agertzen zaigun beste aukera, behera egitearena da. Labakierrekaren zehar, galtzeko arriskurik gabe Kordaunera iristen gara 200 metroko desnibela behera eginez.**

Mugako lepora iritsita, pagadian barna, baina ertzetik, Axusteko lepora iristen gara, bertako freskotasunaz gozatuz.



Usategietatik aurrerantz; koniferak eta pagadia; Leitza eta Areso arteko muga.

Berehala, Usategietako parajea zeharkatuko dugu. Alde batetik hesiak mugatuta; pagadia, eta ondotik aurreko mendean aldatutako koniferen ilarak, xenda garbi samarrari ekinen diogu, eta gorantz beti. Bide honetan, Areso eta Leitza arteko mugatik igarotzen gara. Azken ehun metroak, pinuen artetik egiten dira eta adarrak baxu samarrak direnez, makurtu behar dugu behin baino gehiagotan.



Guratz mendian (955m), iazko mugarren itzuliko hirugarren etapan

Guratz; 950 metroko altuera. Bertan lau herritako mugak elkartzen dira; Gorriti, Areso, Uitzu eta Leitza. Bakoitzak nahi duen tokitan, eginen du noski, baina paraje ederra da, trago bat ur egin ondoren, zertxobait jateko eta eguraldia lagun izanez gero, inguru honetako paisaiaz ozeki gozatzeko; Aralar alde batera, Arantz-Beteluko zuloa bestetik, Larraungo lurraldeetatik barna, Iruñea aldeko hainbat magal eta tontor... Ederra... eta bitartean argazkiren atera, gustukoa baduzu.

**\*Inguru honetatik "erret-bidea" deritzana igaro da.**

Kontuan hartu behar dugu hemen bertatik Belatetik datorren bideak jarraitzen duela eta errekek sortuko dituzten euritako urek bi isurialde erabat ezberdin hartzen dituztela. Leitza aldera egiten duten errekek, bere bidaiaren amaiera Kantauri itsasoan aurkitzen dute. Beste aldera doazanak, Uitzu-Lekunberri aldera, alegia, Ebro ibaian lotzen dira honekin eta azkenean Mediterraneoaren itsasoko Deltebre deritzan parajearen itsasoratzen dira.

Atsedena hartu ondoren, ezkererantz, Uitziko gainaren aldera hartuko dugu, lehenbiziko pinuen bazterreko bideari jarraituz eta horrela pagadian sartu arte. Beherantz goaz. Ezkererantz doan pista garbi samarra ikusiko dugu gainetik abiatu eta hamar bat minutura. Hau utziko dugu eta handik metro gutxira, beste bat sumatuko dugu, eta hori bai, hori hartuko dugu ezkererantz. Itxura denez, garai batean Leitzetik Iruñera, edo Larraun aldera behintzat, zihoan bideetariko bat zela hau.

Egin dugun zatitxo hau, Uitziko lursailean izan da, baina lehen erreka batera iristen garenean, berriro ere, Leitzaldeko lurretan aurkituko gara.

Pagaditik itxordira aterata, Erasote aldeko ikuspegi zoragarria dugu. Garaian garaikoa, udaberri eta uda hasieran, berde sakon batez janzten da paisaia. Marroi goxo eta onttoen estalgarri batez udazkenean eta negu aldean, hainbatetan zuri hautsiaren itxuraz.



Erasoteko mendi hegiak; Ipuru, Egimearra, Egiestu, Egiandi, Isastiberde,...


Hemendik mendiari borobiltasun handiagoa emanaz Erasoteko hegiak ikusten dira ederki; Uitzibideta,

# PLAZAOLA aldizkaria

Aldatzegi, Ipuru, Egimearra, Egjestu, Egiaundi, Isastiberde, Zurlandue eta Egiluzea. Guzti hauetatik Leitzeko mugarriek diraute.



Mugarrien esanahia, denbora eta garaiazen arabera aldatuz joan da.



**\*Aipatzen ari garen bidetik, mugarriei erreparatuz gero, Mugako Lepotik Muñon basoko bidea hartu bitartean, hamabost bat mugarri ikus ditzakegu.**

Ixtordia igarota, kurba itxi batez beste aldera beherantz doan bidea utziko dugu, hau Lekunberrietik datorren bidetiko 13. kilometrora baitoa (mugarrien pasabidera, hain zuzen) eta bide garbi batez aurrerantz eginen dugu, Muñon basoan barrena.

Ordu laurden batera, bat batean, Peru Harri deritzan Gorritenekoa paraje edota erakustokiarekin egiten dugu topo. Orain, garai bateko bideari ezarritako ataka igarota, bide zabalean berriro, beherantz goaz, baserriaren azpira, hain zuzen. Esan beharrik ez dago, baina hemen itxitura diren guztietan bezalaxe, ateka itxi, aziendak ez daitezten kanpora joan.

**\*Niri ez dagokit, baina aipatu aipatuko dut, toki honen balio esanguratsua. Eta horregatik, bertara bisitatxoren bat egiteak, dudarik gabe, merezi duela, gure euskal izateaz hausnarketaren bat egiteko nahitaezko lekua.**



Kukuprakak edo kukubelarrak. Sendabelar bikain bezain pozointsu.

Tranpatxoren magalean, lursail zabalean, harriak, irudiak, indarra eta kulturaren erakustoki, plazer eta identifikazio gune aparta. Hori da hori, hemen ikus dezakeguna, senti daitekeena. Animo, beraz.



Bada nor gozo lanean ari dena.

180°-ko bira emanez, beherantz berriro ere. Eskuin aldera doazen bi bide utziko ditugu albora, eta aurrera jarraituko dugu, errekararekin topo egin arte, Guratz errekararekin hain zuzen. Hemendik aurrera, errekararen paretik jarraituko dugu toki umel eta ospeletik barrena. Hezetasun handiko tokia da hau eta harriak irristakor bihurtzen dira, kolore grisaren estalpean.

Halako batean Kordaunetik datorren bidearekin bat egiten dugu eta orain, Agiriko erreka deritzan ur gutxioko errekarari jarraitzen diogu bide nabarmenetik.

Kandeletxera iritsi gara, zubia pasa eta herrira hurbilduko gara kamio bazterretik. Bost bat minutura duela 2 ordu eta erdi hasitako bideari amaiera emanen diogu. Plazan lasai arren eserita, edota zerbeztaxoren bat hartuz, geure buruari saritxoa emateko moduan gaude.


# 32. ZENBAKIA

## LEITZEKO PLAZA

- Axusteko lepoa
- Guratz
- Gorritteneea
- Kandeletxe
- Leitzeo plaza.

## IBILBIDEA ETA ORDUTEGIA

- Herriko plaza-Lenitz (10')
- Okabioko bigarren pista (25')
- Mugako lepoa (45')
- Axusteko lepoa (50')
- Guratz (1h. 15')
- Bigarren bidegutzea (1h. 30')
- Muñon basoa (1h. 50')
- Peru-Harri (2h.)
- Kordaungo bidegurutzeta (2h. 25')
- Kandeletxe (2h. 30')
- Herriko plaza (2h 40')



## 2. IBILBIDEAN AIPATU DIREN TOKI-IZENAK

Lenitz, Inguruarte, Eltzetako Arrobie, Okabio, Irupagoata, Soromearra, Odion, Astobiaga, Tranpatxo, Kordaungo erreka, Akutio, Ansolitz, Labakierreka, Mugako lepoa, Axusteko lepoa, Usategieta, Guratz, Uitziko gaina, Erasote, Uitzibideta, Aldatzegi, Ipuru, Egimearra, Egiestu, Egiaundi, Isastiberde, Zurlandue, Egiluzea, Muñon basoa.

Mikel Illarregi

## ALKE, Leitzako Kultur Elkarte

2007. urtean legez osatu ondoren, hiru urte daramatzagu jo eta sua lanean; aurrez, beste kide batzuek 30 urtez eginari segida eman nahian. Horrela, gure herria bizirik egotea lortzen dugu, ustez biñipin, eta aurrera.

Gaur egun, urte osoko programa egiten saiatzen ari gara eta maiatzean Kultur Aro (kultur-aste) ederra antolatzen. Ingaruko esana aintzat hartuz gero, esan genezake balorazio positiboa egin behar dela. Guk ere hala uste dugu: alegia, akatsak akats, herrirako gauza asko egiten ditugula eta jendeak ere ongi erantzuten duela.

Edozein moduz, jendearen iruditua eta erabiltzuna jakin nahi dugu, eta zuk ere nahi baduzu eman dezakezu zure iritzia. Baina ez hori bakarrik, iritzia emateaz gain, edozein aholku edo iradokizun, kexa edo proposamen, bidaltzen ahal dizkiguzu. Herrian gaituztu edo bestela interneten. Errazago ezin. Eta, gainera, nahi dugu jendeak bere iritzia eta parte-hartzea izatea.

Horretarako, web-orrian hantxe paratu dugu lehenengo orrian, modu nabarmenean gure lanaren balantzea egiteko galdetegia. Bete ezazu, mesedez, batez ere gure kultur Aroko laguntzailea baldin bazara. Zure balorazio horrek lagundu egingen digu programa osatzen eta aberasten, antolatzerakoan zure zera horiek kontuan hartzen,....



Beraz, laguntzaile zaren hori, ez ahaztu ebaluazio orria betetzea gure helbide honetan: <http://leitzakultura.net>

Eta laguntzaileez ari garela, gauza bat: guri laguntza ematen diguten guzien zerrenda ere paratua daukagu web-orrian. Zuek, gure laguntzaileak, oso garrantzitsuak zarete herrian egiten diren gauzak egiteko. Eta zuei esker ari gara gu ere lan hauetan. ESKER MILA!!!!!!

Aurrera jo dezagun eta azal ditagun, zuk ere jakin dezazun, kultur elkarteak eskuartean dituen lanik garrantzitsuenak:

1. Urte guziko programazioa osatzen saiatzen ari gara, batez ere, festak amaiturik, udazken partean-eta, eguberriak bitartean ekitaldi kultural politak antolatzen...
2. webgunea garatzen ari gara: guzientzako agenda, herrian antolatzen den guzia iragarri, erretratu zaharren bilduma, kirol saila garatzen ari gara, euskararen txokoa...
3. Neguko festak eta ospakizunei buruzko ikerketa: orantzaroa, erregeak, zintzarri-kulunka jotzea, ihauteriak... gure

herriko jendeari elkarrizketak egiten ari gara gure herriaren ohiturak eta kultura hobeki ezagutu eta zabaldu eta berreskuratzekeo...

4. Erretratu zaharren bilduma: epe luzeko asmoa da. Herri-tarren babesa beharko dugu horretarako, izan ere, jendearen ekarpenik gabe ezin dugu deus handirik egin. Eta pena handia da argazki zaharrena, galdu egiten baitira denborarekin. Guk digitalizatu eta "errestauratu" egiten ditugu, ondoren atzera jendeari utzitakoak itzultzeko, eta interneten eta paratzeko. Honatx, ohar zaitezten zertaz ari garen, Juan Luis Artolak utzitako argazki zoragarri horietako bat:



Aurrerago jo baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiogu herriko jendeari: gure lanetan eta elkarrizketetan eta argazki-bilduma egiterakoan eta, jende asko ari zaigu laguntzen. ESKERRIK ASKO zuei guzietan, batez ere zaharrei eta; izugarri laguntzen ari zaizkigu gauzak erakusten eta kontu zaharrak eta esaten.

Bestalde, esan dezagun odol berria ere beharko genukeela gure taldean. Lanean gustura eta ongi ari gara baina jende gehiago eta, batez ere, gazte-jendea izanen bagenu, ziur gaude, oraindik ere hobeki ariko ginatkeela, eta gure lana izanen litzatekeela herrirako.

Orain, oso azaletik bada ere, gure lan baten berri zehatzagoa eman nahi dizugu, garai bateko ihoteriei buruzkoa, hain zuzen. Arestian aipaturiko xahar horiei zor diegu lan hori ere. Ea zer iruditzen zaizun prestatu dugun erreportajetxoak.

### Leitzeko ihoteri zaharrak: atxaureak eta zomorroak

Igaro ziren 2010eko inauteriak Leitzaldean. Ongi igaro ere, festa eta zalaparta, karrozak eta lehenengo atxaureak; Leitzako herriko atso-aguretzetik omen datorrena. Alegia, atsoz edo agurez janztea. 2007an hasi ginen atzera lehenengo ohitura hura berreskuratzea nahian eta, urtez urte, gero eta jende gehiago ateratzen da eta hurbiltzen ari da festa horretara.

Euskal Herri osoan ihauterietan pisu handia dute. Lehen ere izan zuten bezala. Bada, herri batzuetakoak ikertuak izan dira. Gauza jakina da hori, batez ere, Lantz, Zubieta eta Ituren dagokienez. Alde batetik, buru-belarri jardun zuten

horretan lehengo etnologo eta ikerlariak: Julio Caro Baroja, Juan Garmendia Larrañaga,... Bestetik, herri horietako inguruko taldeak bertan aritu izan dira testigantzak biltzen eta gaia berreskuratzen. Eta, aurreko lan horien fruitu, orain berriro Ituren, Lantz eta Zubietako inauteriak izendatu ditu Nafarroako Gobernuak Interes Kultureko Ondasun Materialak.

Leitzari dagokionez, ordea, gai hori ez da modu serio eta zorrotzean landu, eta ikertu ere gutxi egin da. Duela 20 bat urte, saiakeraren bat izan zen lehengo festa berreskuratze-ko, baina, bizpahiru urte igarota, itzali egin zen. Honatx orduko atxo batzuen erretratua:



Ondoren, duela hiru urte, 2007an hain zuzen, Leitzeko Ihauterizaleak taldea sortu zen eta "ALKE" kultur taldearen laguntzarekin gaia lantzeari berrekin genion. Hala, testigantzen bat jaso eta Erreka auzoko lagun sail bat nola ibiltzen eta nola jantzen ziren argi samar bildu zuten. Horren ondorioz, Leitzeko atxauren kalejira berreskuratu eta, dagoeneko, hirugarrena da aurten igaro dena. Emaizta ontzat jo dute ihauterizaleak; izan ere, urtetik urtera hobetzen ari da festa, eta gero eta jende gehiago ateratzen. Alde horretatik pozik egon behar.

Migel Mari eta Agustin, Leitzeko ihauterizaleak taldeko kideak, izan dira gehien bat saiatu direnak berreskuratze-egitasmo hori martxan jartzen. Haien iritzian, lehengo festa berreskuratu behar da. Eta galdera hau ere egiten diote beren buruari: "Lesakan, Altsasun eta beste zenbait herritan berpiztu baldin bada, zergatik ez egin gauza bera Leitzaldean?" Leitzan ere gauza bera egin beharko litzateke, horien ustez, eta, horrela, ihauteriak izugarri indartuko lirateke.

Kultur taldea ere sartua da lan horretan, eta, gure iduritan oso onuragarria da oraindano egindakoa baina beste urrats batzuk emateko garaia ere bada. Honakoa adierazi nahi dugu: "bidea hori dela garbi dago. Lehengo eta oraingoa uztartu behar ditugu eta horrela bertako kultura eta tradizioak indartu. Hala ere, oraindano ez da behar bezain sakonki aztertu gai hori."

Kultur taldean elkarriketak egiten ari gara herrian, gaia ikertzen, bere osotasunean. Orain arte egindakoetatik esan dezagun herriko xaharrenen hitzetatik garbi jaso dugula bestelako festa moldeak, jantziak eta atxo-motak ere bazirela. Gure iduriz, gehiago ikertu behar da oraindik eta informazio zehatza lortu, eta, ondoren, erabakiak hartu.

Pertsonaia eta ihoteri-modu berriak zaharberritzeko proposamena egiteko garaia da, lanketa sakona egin behar dugu eta herriari gaia ongi landua azaldu, ea guzian babes eta lankidetzaz lortzen dugun eta gure herriaren nortasuna sendotu.

Aurten ekin diogu lan horri eta oraindik asko daukagu ikas-teko eta argitzeko. Lan hori guzia bilduma batean osatuko dugu eta aurrerago ere azalduko dugu jendaurrean, baina, aurrerapentxo bat izan dezazun, labur-labur azaldu nahi dizugu zein bereizitasun jaso ditugun orain arte:

## Noiz izaten ziren:

Tolosakoekin eta Aresokoekin eta beste guziekin batera. Garizuma aurretik. Hiru egun, jakina: zaldun-ihote, astelehen-ihote eta astearte-ihote.

## Zein martxa izaten zen:

Jende asko ibiltzen zen atxauretuta (jantzita eta aurpegia estalita) eta festa izugarria izaten zen hiru egunez; mutilak eta gizonak gehiago baina neskak ere ateratzen ziren. Ezaugarriak behinena aurpegia estaltzearena zen: trapu bat paratuta, galtzerdi bat paratuta, karetarekin baten bat...

## Eskea.

Orain egiten den bezalatsu egiten zen baina azkarrago ibilita: baserri-borda bakoitzean, txistulariek piezaren bat jo, xaharrekin eta konturen bat esan, kafetxo edo zertxobait jan, edo arrautzak edo jaso, eta beste batera. Bazkaltzerako, betiere, goiz samar, herrira jaisten ziren gazteak. Jakina, bazkalondoan atxauretu eta plazara joaten ziren. Honatx eskelariak duela 50 bat urte:



## Plaza.

Hiru egunetan baina batez ere asteartean kristoren giroa sortzen zen; neskak, umeak, atsaureak, musika; zelebrekeri izugarriak; antzerki tipoko saioak; atxaureak gora eta behe-...

Plazan neskak dantzan fuego, akordiona eta txistua, eta atxoak inguruan zirika-mirika; bat dantzara atera eta gero bakarrik utzi; atxoak karrapera sartu nahian nesketara; atxoak maskuriarekin neskei eta segika, kolpetxoak eman; lume-isatsarekin kilimak egin...

Asteartean ingurutxoak egiten zen atxoak eta denak elkarrekin...

# PLAZAOLA aldizkaria

Amazkillekin baten musika bukatua. Iluntzearekin batera, edo oso berandu baino lehen betiere, musika bukatuta atxoek aurpegia agertu behar zuten, edo, gainerakoan, joan egiten ziren plazatik.

## Gaua.

Neska gehienak etxera, baten batek lagunduta edo ahal zuten bezala, tabernetara ere ez ziren joaten eta. Ostatuak baziren mordoxka eta han zurrutean berandu arte gizonak eta...

## Musika.

Jendeak izugarri estimatzen zuen. Akordiona izan edo txistu izan festa segurua zen, eta dantzaldi izugarriak egiten zituzten.

## Atxoak nola ibiltzen zien.

Inork ezagutu gabe:

horixe zen festaren gakoetako bat, inork ez ezagutzea eta hori lortzeko edozein gauza egiten zuten atxoek; aurpegia trapuz estalita ere azpian aurpegia dena beltzez margotua eramanez, arropak elkarri trukatu arratsalde erdian edo egun batetik bestera, hizketa desberdina egin, ibilera ere aldatu eta urgunka ibili...

## Umekin:

"atxoa-atxoa zerrie beño faltsogoa" esan umeei, eta atxoak atzetik segika, maskuria-edo erabiliz jotzeko...Atxo batzuk beldurgarri samarrak gertatzen ziren adarrak-eta zeramatzatela, eta haurrak ikararazten-eta ibiltzen ziren...

## Neskekin eta:

maskurie, makille, sardea edo lomezko isatsa erabiltzen zuten atxoek jendea zirikatzeke eta: maskuria askok erabiltzen zuen oraingo buruhaundiek bezalatsu segitu eta kolpe txoak emateko; beste batzuk berriz lomez eginiko isatsa ere erabiltzen zuten neskatxei-eta kilimak egiteko, lepoan edo harrapatzen zuten lekuan; sardearekin edo buruan adarrak erantsita zebiltzanek jendeari ekiteko keinuak eginez; beste batzuk zibuzte ere erabiltzen zuten ura edo lohia edo botatzeko...

Atxo batzuek, aurpegia estalita eramaki, inarrosaldiak eta harroaldiak ematen zizkieten neskei; batzuetan baimenarekin-edo, eta besteren batek, berriz, gaiztakeriaz...



## Soinua ateraz.

Atxo horietako asko ibiltzen ziren zintzarriak, kulunkak, kas-kabiloak eta zeramatzatela soinean lotuta uhal baten bidez edo lepotik zintzilik edo. Hala, beren ibilera oso berezia zen: soinua ateraz, konpasa eramanez eta txukun-txukun: kulunkulun-kulun; ttilin-ttilin, ttilin... Hori oso ohikoa zen baina normalean konpasa eramanez, alegia, modu ordenatuz eta soinu polita ateraz...

## Zein atxo-jantzi zeuden:

### Neska jantzin edo:

Etsekoei edo ahaideei eskatuta emakumeen jantziek estimazio izugarria zuten. Batzuek ilea ere egiazkoa egiten zuten ihoterietarako. Ahal zutenek dotore jantzen ziren arropa onekin edo, alegia, zapatak eta goitik behera behar den bezala jantzita.

### Xarpaxu-xarpaxuk edo:

"Sobrekama" edo mañdorea edo nolabait patuta. Besterik ez zutenak zakua ere erabiltzen zuten eta zaku-jantzian ibili, goitik behera patuta. Besteren batzuk inon bazen larru zaharren bat edo hura gainetik jarrita, modu zomorro-zomorroan...

### Unidez jantzita:

Ateratzen omen ziren tipotsu horretan ere, umea balute bezala eta zurezko karroa eta janzkera berezian... Brusek eta koloretakoak botobe haundiekin edo pailazoak edo bailiran... Herrian saila ateratzen omen ziren horrela: bruxe antzekoa urdina edo gorria eta botoi zuriak goitik behera goian handia eta behearantz txikiagoak patuta, mahuketan ere berdin, eta baita tuturruan (txano kukurutxoduna) ere.



### Zakukin, zakuzaharrakin jantziak:

Zaku-jantzian ibiltzen zirenen artean, oso ohikoa zen txanoa lastozkoa-eta erabiltzea. Eta belarraz edo txurikinez edo bete-beteak egitea. Batzuk lurrera erori eta ezin goratuz eta ibiltzen omen zien, laguntzaileak ondoan zituztela. Hala, batzuk oso potzoloak ibiltzen ziren eta beste batzuk, berriz, gutxixeago eta gorputzaren forma okertuz edo...



## **Aziendak balie bezela:**

### **Hartza-jantzian:**

Ardi-larrua denean, hanketatik bururaino jarrita, eta abar.

### **Ahari edo behi jantzian:**

Adarrak eta guzi. Arropa ahal zen bezalakoa (abarkak, galzterdi artileak, eta goian ardi larrua bizkarretik eta buruan adarrak erantsita, ahariarenak edo behienak edo...

### **Behi edo idi itxuran:**

Azienda pareta balira bezala, uztarrarian lotuak, kopetakoekin eta guzti, gurdia arrastan zeramatela eta ondoan beste lagun bat akuiluarekin...



## **Zenbait sail nabarmen:**

### **Errekatarrak:**

Goitik behera soineko luze dotore-dotorea kolore bizikoa normalean; eskuak eta den-dena estalita, hori guzia soinekoaren kolorekoa; tuturrua luze-luzea eta lumez eta paper koloretsuko xerrendaz bete-beteak, izugarri ikusgarriak. Aurpegia estalita; eskuan zakutotxo bat paper txiribilekin jendeari botatzeko edo maskuria edo lumez eginiko isatsarekin. Zintzarriak, kulunkaren bat eta kaskabiloak soinekoaren azpian. Sailean ibiltzen ziren soinua konpasean eramanez eta ibilbide desberdinak eginez herritarrek ez jakiteko nor ziren eta nondik heldu ziren. Jendea, herrian eta baserrietan, zain egoten omen zen haiek noiz etorriko, batez ere herriaren erdian, Aliñeko paretsu horretan. Hortik herriari buelta eman, plazara joan...Horrela ibiltzen omen ziren.



## **Arkixkildarrak:**

Gurdiren bat ekarrita, eta beti zelebrequeriak eginez: abereak eta apainduta ekartzen zituzten, konparaziora astoa galtza eta txanoarekin jantzita; meza ospatzen ariko balira bezala beren saioa egin, konparaziora, zakurra bataiatu; feria antzetzten, salmentan bezala; harilkatzeko makinan haria egingen... Honatx gerra aurreko erretratua:



## **Gorritzarandarrak:**

Dotore jantzi tuturru liso kozkor batzuekin eta soinekoekin eta, eta zankoetan etorri, baina errekatarrak bezala buelta handia eginez eta inork ez zekiela nongoak ziren...Han frontisen edo herriaren erdian hantxe egonaldia egin eta martxa...

Lanketa hau, esan bezala, osatu gabe eta forma eman gabe daukagu eta aurrerago modu txukunago batez aurkeztuko dugu. Barkatu horrela aurkeztea baina iruditzen zaigu interresgarria dela jendeak jakitea zertan ari garen.

Esanak esan, ibili eta buelta, gaia hortxe daukagu. Bi talde lanean herri txiki bateko ohitura zahar bat indartu nahian. Euskaldunok geureari eutsi izan diogula esan ohi da. Leitzaldean badugu orain hori erakusteko egokiera. Ea gure asmo polit horiek egia bihurtzen ditugun. "Aizu! Eta zu zer? Atxauretuko al tza zu re heldu den urten? Bai, seguru, beño, lehen bezela? gerra-aurren bezela?"

Izanen dugu elkarren berri.

ALKE, Leitzeko kultur taldea

## Presoen eskubideen aldeko azken ostirala

Beste hilabete batez eta milaka dira jada, gure senide eta lagun presoen eskubideak ez dira errespetatuak izan. Indarrean dagoen espetxe politika kriminalak bere alderik gogorrena erakusten jarraitu du. Hain zuzen ere, euskal preso politikoak eta euren senideak egunero heriotzaren korridorean murgilduarazten duena.

Azken gertaerek bihotza samindu digute. Bizitza erdia bere sorterritik kanpo eman behar izan duen Mikel Zalakain Villabonatarren heriotza. Une latz hauetan gure berotasun eta gertutasun osoa eskaini nahi diegu bere senide eta lagun guztiei. Erreprosoaren aurpegiarik latzenak ezagutu zituen Mikelek. Ihesa, atxiloketa, espetxea eta euskal preso politikoa zuen aitaren heriotza. Gora Mikel!

Iheslari politikoen egoera ez da batere xamurra. Berriki, hiru euskal gazte atxilotu zituzten Carabinieriak Erroman. Euren delitua, gazteak izatea, antolatuak egotea eta lan politikoa egitea. Italiako espetxe zaharretan sartu dituzte eta euren aurkako euroa-ginduaren zai daude. Jazarpen honekin amaitzea eskatzen dugu! Euren eskubideak errespetatuak izan behar dira!

Ezin ahaztu, sakabanaketak eragiten dituen istripuak. SAKABANAKETAK HILTZEN DU. 16 senide eta lagun hil ditu. Ahaztu ezineko zenbaki bortitzak.

Sakabanaketak 300 istriputik gora eragin ditu. Sakabanaketak sekulako odoluste ekonomikoa suposatzen du. Hilean 2.000 eurotik gorako gastua preso bakoitzeko, urtean kasik 20 milioi euro. Baina, argi daukagu eta jakin badakite espetxe politika kriminal honen bultzatzaileek... gure senide eta lagun presoak ez ditugula sekula bakarrik utziko. Sekula ez!

Espetxe barruan ematen diren eskubide urraketak etengabeak dira. Isolamendurako modulora bidean, mehatxatu egiten dituzte. Ez daukate lotsarik. Isolamenduan, gure senide eta lagunek 22 ordu ematen dituzte ziega baten barruan, inorekin kontakturik izan gabe.

Egoera muturrekoa da. Sakabanaketak eta isolamenduak eragindako ondorioak aipatu ditugu baina hauek ez dira euskal preso politikoek pairatzen dituzten eskubide urraketa bakarrak. Bizi osorako zigorra aplikatzen dute, gaixo eta larri sendaezinak dituzten presoak ez dituzte askatzen edo askatzen dituztenean heriotzaren mugan daude. Kolpeak, umiliazioak, intoxikazio mediatikoak, bisitak jasotzeko mugen antzera, komunikazioen bortxaketa

etengabeak edo erabat arbitrarioak diren traslardoak ere etengabeak dira. Hori, espetxeratu arreretik gure senide eta lagunak torturatzen dituzten inpunitatea ez aipatzearren.

Guri dagokigunez, senide eta lagunoi dagokigunez, ez dugu onartuko gu umiliatzen saiatzea. Milaka aurrez aurreko galdu dira, baina duintasunez eta tinkotasunez erantzun dugu. Gure arteko batasuna hausten saiatzen dira eta euskal preso politikoak euren inguru afektibo, sozial eta politikotik aldentzen saiatzen dira. Baina argi dugu ez dutela euren helburua lortuko.


Gure senide eta lagun presoek pairatzen dituzten eskubide urraketak salatzen jarraituko dugu. Indarrean dagoen espetxe politika kriminalaren ardura-dunak interpelatzen jarraituko dugu. Euskal Herriko gehiengo osatzen duten eragile sozial eta sindikalekin kalera irteten jarraituko dugu. Gure senide eta lagun presoen eskubideak errespetatuak diren egunsenti berri baten alde lan egiteko.

Honetarako, hilabetezko azken ostiraletan burutzen diren mobilizazioetan, parte-hartzea ezinbestekoa da. Herritarren maitasuna agerian gelditu da azken hilabeteetan, baina ezin gara erlaxatu. Presoen eskubideen alde, bakoitzak hilabetean ordu erdi bat eskeintzea ezinbestekoa da. Ezinbestekoa, euskal preso politikoak dauden espetxe guztietara haize freskoa eta duhintasun haizea helarazteko.

Hurrengo hitzordua, datorren asteartean abuztuak 10 izanen da. Eguerdiko ordu batean Leitzako plaza-tik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen diegu herritar, eragile sozial eta sindikalei.

Beraz, nahikoa lan dugu egiteko. Baina guztion artean lortuko dugu!

**EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK ETXERA!**



Etxerat

## Ateraldik eta ixtorik

### Gaitz asko

Gure Joxe oso gaixmala da, inon diren gaitz guzik harrapatzen ditto. Lehengoan yoan zen satorran belenoa egiteko usanbelarrak biltzera Martikonekoanbasora eta han hoztu eta errefiuretute dago. Intxuslorekin egositako esnea hartzen ari da.

Praxku atzo egur hausten ari zela ezpal batek yo bernen eta txire berritu zaio. Orain zornea dariola dago.

Gure Mariak belarritan eta hanketan ospel izugarriak ditto. Eta arpegie dena oriñez betea dauke.

Inaxio kazkarabarretan arbi ateratzen aritu eta eskuk itzatzitu zaizkio. Kuranderoak egindako okendue ematen ari da.

Joanmartini bixike atera zaio iztarren. Intxus lorekin egindako enplastoia yarri diot eta ondu zaio. Gaur gesala dariola dago.

Gure Joanitari behiko ezpainen basastoa atera eta ederrak ekusi ditto. Orain sendatu zaio baño erresumiñekin dago.

Kataliñek gaur kolikek bota ditto eta larremillu-salda hartu do.

Benardok karetxak zitun eskutan eta karetxbelarrak yarri eta kendu zaizkio.

Amonari aunditsue atera zaio bizkarren eta larremillukin egindako enplastoia yarri eta ondu zaio. Kuranderoak lantzetaz zulatu eta sekuleko zornek atera ditto.

Garie ebaki beharra daukeu eta auzokoak ittera etorriko zela uste giñun baño hak e hala hola dabilte.

Joakina bekatxukin dago eta begi batetik ez do deus ekusten. Eta hori gutxi balitz behatz bat dena hazie dauke behazkoarekin.

Joanek behatz haundin elturre do eta sekuleko oñazek dauzke. Eltze katetun artabizarrak egosi eta han sartzen do eskue.

Oxakini iztar txokoan kurintxoak atera zaizkio eta hotzikarakin dago.

Joxemartin ixtorketara yoan eta bideko harribonbolloatan harrieurtzie egin eta orbeatue dago. Orain urgunke dabil.

Luis argatesagarra biltzen ari zela begitako argie egin eta erori eta hanka bihurritute dago.

Alkik epurdik hautsikin zeuzkeela eta Fermin yoan zen Halarburure alkik iotzeko belarrak bilt-

zera eta han ari zela bihotz-estalie egin. Eskerrak han tokatu zen Oxantonio. Gurdixtorra eta atzetik herrestaldie zula heldu zen. Bota zuen Fermin herrestaldin gañea eta erdea zeriola baño bizi-rik allatu zen etxera. Honetxek ere ez do suerte haundirik. Orain dela bi urte Haitzmalkorren amildu eta txurnioa hautsi zuen.

Lehengo udan morroyek atza arrapatu zun eta denak kutsatu giñozen. Uda guzie hazkaka aritu giñen larrotu arte. Atza oso kutsakorra baita. Esaten dute edertasune bakarra dela kutsurik ez duena.

Neskamea langille porrokatue da eta Goibetelun haritzosto zatukek egiten aritu eta dena izerditu. Gero yoanda Mandatxixeko itturrire eta ure larrue beten edan. Eta han ur zorrik izakio eta urekin baten barrena sartu. Gero tripeko miñez intzirike!

Osaba Joxe tioso gaizki dago. Elizekoak eman omen dazkioa eta oso txar omen da. Gurejaune eman ondoren abadek eta sankristabek atsaldeko bikañe egin dute. Mantekatik ataeratako solomo gazittue eta ondoren intxaurrek eta ezkie. Empo yan dute. Eta mezalaguntzallek birikeziztorra eta sagar erreke yan dituzte.

Dominisanturu bihamonen Izoa Oxepa Batango presan lixue yotzen ari zela nobedadea egin omen zitzion. Orain hobeki omen dago. Ezagera etorri omen zaio.

Attunari lardaye erori hanka gañea eta hanka zagie bezala azita eduki do. Eskolabeneko bordako donadue yoan Goizetako itturrire, han izayek billatu eta botillen uren sartu eta ekarri zituen. Gero attunari yarri zezkion hanka gañen pasmoa tiratzeko. Odol ori guzik iritsi zizkieten izayek eta hanka sendatu zaio.

Haurre gorbezin esnatu da eta orain mukerren dago.

### Gerezeondoa laisterka

Joan ehiztari amorratue zen eta ehizera yoan arteko onik ez zuen izaten udazkenen. Halako aparato bat bazuen eta berak kargatzen zituen kartitxoak. Egun baten hasi zen kartitxoak kargatzen eta sartu zituen pistonan, polbora eta takoa baño perdigonik ez izakio eta zer egiñen do eta gereze hezurekin kargatu zituen karti-

# PLAZAOLA aldizkaria

txoak. Yoan zen Kantarinbasora eta erbizakurrek eraki zuen baserbi haundi bat eta tirabidera ekarri zionean tiratu zion tiroa baño baserbie salto izagarrie egin eta sekulen baño osasun hobekin aurrera. Joan bere onetatik atera zen eta bere burutik esan zuen "Eztit gehio yoan bahar ehi-zera" eta etxera etorri eta eskallera tranpan utzi zuen eskupeta.

Baño hurrengo urtea etorri zen eta berriz ehizera yoateko gogoia yarri zitzion. Eltzetik zitzorak atera eta puske ederra eta zato ardoa hartu eta yoan zen mendire. Eta zer da hor din hori? Arbola mugitzen ekusi zuen. Bai, arbola zitzu bizin zila ekusi zuen! Zerdata lehengo urten baserbin epurzulotik gereze hezurre sartu eta gerezea yayo eta arbola egiñe zegoen!



## Txoxne yalea

Abuztuaren aurrenak ziren. Goizen goiz lamada izugarrie nabaritzen zen. Hegoaize zakarra zebilen eta artoak txorroto eta etzan zituen.

Garai hartan artoa supen erreta yaten zen. Arto beroaren tarten sartu gazta eta marrekukue egiten zen. Arta zopak ere ixtimazio haundie izaten zuten. Koipe ziatue ere arto beroarekin ederki berazten zen.

Benardo hainbeste arto botata amorrazie zegoen Jainkoa gaizki portatzen ari zelako. Eta hala zion:

Bai, hark ez do artorik yaten. Hure txoxne yalea da, txoxne yalea.

Txoxnea izaten zen halako ogi goxo bat. Segiziotan emakumek yaten zuten ogi hori.

## Leitzarra Orreagako kolegiatako sukaldari

Jose Maria Martirena Orreagako Andre Mariaren Kolegiatako sukaldarie zen. Berez Peusteneko herriko semea zen. Baño ez taberna eduki zuten horietakoa, beste famili batekoa baizik. Honen arreba bat Yonobordako amona zen, Mikela izena zuena.

Jose Mari hau, etzen sukaldarie bakarra, liburutara ere oso afizionatue izan behar zuen. Yonobordan libu asko omentzen honek emana. Baño beti izaten da etsaikerie eta Leitzeko abadea Yonobordara yoan zen baten amonan gelan liburu horik ekusi eta asko gustatu. Eta behar zituela liburu horik. Amona ezetz esatea ez atrebitu eta abadek libururik hobenak bere etxera ekarri omen zituen. Eta gaur arte.

Jose Maria gure atte zenaren atautxie zen eta As-taitzagan badire bi liburu haundi eta Orreagako amabirjinaren irudi eder bat honek emanak.

Garai hartan Orreagako Kolegiatako priorea Fermín Goikoetxea zen, Lekunberriko semea. Jose Mariak eskuondo ona omen zuen yana prestatzeko eta prioreak bere begikoa omen zuen.

Hona hemen bere rekordatoriaoa:



## Zapo yatea

Bi gizonak apustue egin omen zuten. Zapoa baietz yan eta ezetz yan. Batek esan zion bes-teri: "Nek zapoa yanen dit baño hik zapoa baratzurikin eurtzi eta baratzuri horik yan bahar dittok". Eta hala egin zuten. Zapoa yan zue-nari ez omen zitziõ deus ere gertatu baño baratzurik yan zituena hil egin omen zen, baratzurik zapaoren pasmoa tiratu zutelako. Garagartzako attuna Luziano Olano zenak kon-tatue.

## Asteko esamesak

Lehenago bazen agure mordoska igande guzie tabernan botatzen zuena. Egun batean taber-nan sartu eta bestean atera egiten zuten. Goi-zen argimezatik atera eta usualez asetzen zire-nean hasten ziren marmarrean:

Tomax zoldazu hezurbeltz horrek gure gazta-ñerie bildu dik behitik hasi eta goraño. Nahigo nitek gaztain erre guzik aban tiroa egiñen ba-lia.

Abadek sermonea egiñ dik. Garizume heldu dela eta buldek hartzea yoateko. Diru biltzeko artea. Botako nitek bere kulpittukin!

Herrik hartu omen dik erabakie udazkenen amezkille yo ondoren iñor ezin dela landan la-nen ari. Alkate ziri horri ojala kakeri gaxtoak emanen balio!

Ollaloka patzeko arrultzek trukatu giñetien eta atso lepa-arre hitzeder gaintxuri barrenbeltx horrek hiru ustelak bialdu zetien bueltan.

Auzoko mutilzar mengel txatxu horrek gure etxe ataritik kereta eta zur leuntzeko aizkora ohostu zetik. Hori beti marrojoan. Esan zeyoat itzultzeko eta ukatu eta berek geyokin yarri zetzeidek. Gizonetara yoan beharko diu. Han erabaki dezatela zeñek duen arrozobe.

## Leitzen bakarra egiten diren gauzek

Senar-emazteak Leitzen bizi ziren. Gizona be-rea bakarra ona duen erre kixkali horitakoa zen eta andrea yotzen zuen. Egunero izaten zen ixkanbille.

Gero Aisora yoan ziren bizitzera. Igande arratsa zen eta hango motillek zeletan zeuden. Gizo-nak betikoan segitzen zuen. Aurrena asmalak esan zezkion andreari eta gero hasi zen yotzen. Ordun sartu ziren motillek etxe barrenera eta

sekuleko egurra eman zioten gizonari. Eta esan zioten: "Gauz horik Leitzen bakarra egiten dire. Hemen ez da holakorik egiten".

Eta gizon horrek ez omen zuen gehiago andrea jipoitu.

## Fiakaitze

Ez zen huxe merezi zuen andrea baño gizona erretxiñe eta errezeloso hutse zuen. Ez zuen nahi izaten bere andreak iñorekin itz egitea. An-drea itturrire ureta zinen gizona gaztain epurdi-tik begira egoten zen. Andrea larremillu biltzea yoaten zenen gizona oihañ ertzetik zeletan ego-ten zen, ia etortzen ote zitziõ artzairerbat.

Arto eritteko garaie zen eta gizona estu estu ari zen alorren erreloa zabaltzen. Bernardo arto hazitarakoan bille yoan zen etxe hortara eta an-drea bakarrik zegoen etxen.

Gizonak Bernardo sumatu zuenean alorreko la-nak utzite azkar etorri zen etxera.

Eta Bernardok esan zion: "Abudo etorri haiz fiakaitze. Nek andrea yateko bildurre al huen?"

Astaitz

## Euskal memoria fundazioa

Euskal Herriak, herri ukatua eta zapaldua den heinean, bere azalean bizi izan du historiaren faltsutze etengabea. Espainiar eta frantziar estatuen eraso ideologikoak eragina izan du gure ikuspegian. Izan ere, hedabideek, hezkuntza kurrikulumak, erakundeen diskurtsoek eta doktrina antiterroristak hamarkadak daramatzate garenaren eta egiten dugunaren gezurrezko bertsioa eskaintzen.

Eraso ideologiko horren helburua herri honen jatorria ezeztatzea da, geure talde-nortasunaren oinarriak mito zentzugabetzat hartzea, horrekin gure etorkizuna desaktibatzeke. Ortzimuga ikusi ez dezagun, gure historiaren sustriak industen dizkigute. Iragana gezurtatuz, orainari beldur izan diezaiozun eta etorkizuna ikusi ez dezagun.

Zentzu horretan, Euskal Herriaren memoria berreskuratzea gaurkotasan osoko eta garrantzia handiko eginkizuna da. Euskal nazioaren eraikuntzari eta burutzeke dagoen prozesu demokratiko baten berme historikoei estuki lotua. Gure jendartearen bizipenak talde-borondate baten zati dira, honenbestez ezinbestekoa da ekimen iraunkor, irudimenezko eta aktibatzaileen bidez lapurtutako memoriaren berreskuratzearen partaide izatea. Herria bera sujetu izatea, alegia.

Horregatik, geure berezko historiaren gidoigile eta narratzaile nagusi izateko ahaleginak merezi du. Gauzak aldatu nahi baldin baditugu, ezinbesteko baldintza da nortzuk garen, nondik gatozen eta zergatik irauten duen ezeztatzen gaituen zapalketa honek. Ez dezagun ahantzi aldaketarako baldintzak geure autokontzientziaren baitan ditugula. Euskal Herriko memoria historikoa, ordea, ez da jakitunen eztabaiden arteko planoan geratzen. Alderantziz, ondorengo belaunaldiei egia erakutsi behar duen lekukoa eta erresistentzia iristen zaiela ziurtatzeko baliabide eraginkorra da. Aldaketa politiko eta sozialerako indargunea. Geure nortasuna eta kale eta testu liburuetako eskaerak ezabatu nahi dituen erasoaren aurrean lubaki eraginkorra.

Izan ere, etorkizuna eraiki eta oraina alda-

razteko ariketa eraginkor zein ezinbestekoa da memoria historikoaren berreskuratzea. Geure historia osterara ere erreparatu eta berri hausnartzea Euskal Herriko gatazka politikoa gainditzeko, eta irtenbide demokratiko batera gerturatzeko inbertsioa da, eta horixe da aurrean dugun erronka, interferentziarik gabe ulertu eta kontatzea: 1936ko gerra, Frankismoa, Erreforma, frantses zentralismoa eta espainiar Konstituzioa nabarmenki kate-maila berean daudela ulertzen dugunean gatazkaren, bere jatorriaren, ondorioen eta konponbidearen ikuspegi orokorra zeharo aldatuko dugu. Orduantxe bakarrik hasiko gara irabazten geure geurea den egia erakutsi.

### Euskal Memoriaren helburuak

Berreskuratzearen honetan jauzi esanguratsua ematera dator, hain zuzen ere, Euskal Memoria egitasmoa. Ariketa kolektibo honetan aurrera egiteko ezinbestekoa dugu sarea jostea, ekarpena egin eta biltzeko, informazio bilduma-lana zein dibulgazioa bermatzeko. Euskal Memoria egitasmoaren bitartez, errealitate bilakatu nahi dugu geure historiaren berreskuratzearen ariketa kolektibo hori, garaiz garai, arloz arlo, herriz herri... Apurka jorratuko dugun bide ireki eta luze gisa, baina pauso erabakior eta eraginkorrak eskatuko dituen ibilbide gisa.

Helburuak, beraz, ikusmira luzearekin begiratzekoak dira, baina jadanik pausoak emanaz eraiki nahi ditugunak. Batetik, geure historia eraikitzeke bilduma-lana egituratzea dugu helburu. Informazio-sare partehartzaile, bizi eta egiazkoa osatzea alegia. Gu geu izan gaitzen geure ikusmira propioa osatuko dugunak. Iparrak, dokumentazio-gune propioa noizbait izatea. Bitartean, horra iristeko hamaika ekimen eta aurrerapauso badira, **"Gernikako seme-alabak"** libururako bildu beharreko dokumentazio-lanak eta horretarako ariketak erakutsi duen bezala.

Bestetik, biltzen dugun hori jendarteratu behar dugu. Sare horren izaera dibulgatzailea ere izan dadin. Herri honek bere historia propioa ezagu-

tuz hartuko du bere buruaren kontzientzia, al-daketarako ikuspegi propioa. Lan ideologiko eta sozial zabala behar dugu horretarako, euskarri anitz baliatuko dituen, zabala, partehartzailea eta irekia.

## **Euskal Memoriaren zutabeak**

Nola heldu erronka honi? Zutabe ezberdinen gainean emango ditugu oinarritzakoak baina atzeraezinak izan nahi duten lehen pausoak.

Lehenik, Euskal Memoria Fundazioa abiatzea. Euskal Herriaren historiaren berreskurapenean modu ezberdinetara parte hartzeagatik eza-gunak eta erreferentziazkoak diren pertsonak osatua, lan ideologiko eta sozial horren erreferentzia nagusietako bat izango da. Helburu hauek, Euskal Memoriaren herri-berreskurapenean aldarrikapen eta praktikak erreferentzia orokor bat behar dutelako, eta gizarteratu behar ditugulako. 2009ko azaroan eman ditu lehen pausoak Fundazioak, bere burua aurkeztuz eta ibilbide luze honetarako babes eskatuz. Hortik aurrera, komunikabideen, web orriaren eta abarren bitartez geure historia propioaren beharraren eta hedapenaren inguruan beharrezkoa dugun lan ideologiko zabal horretarako lanabes nagusi izango da. Atal honetan, dokumentazio gune iraunkorra sortzeko konpromisoa ere hartu dugu. Sakabanatuta dauden materialak, testigantzak eta datuak bildu, sailkatu eta digitalizatu ondoren, memoriaren berreskurapenean diharduten pertsona zein taldeen dinamika soziala elika-tzeko erabilgarri egon daitezten.

Bigarren zutabea dibulgazioari begira edizio mailan harturiko konpromisoarekin lotua dago. Biltzen hasi garen eta osatzen joan beharko dugun ondare historiko hori guztia argitaratu eta gizarteratzea ez da gaur egun sortu den lana, urte askotan apurka errealitate bilakatzen ari den lana baizik. Hala ere, Euskal Memoria egitasmoaren helburuei bultzada emateko asmoz, lerro editorial zehatza jarri dugu martxan, orain artekoari bultzada sendoa ematearren. Urterotero bi aldizkari eta Euskal Herriko historian berreskuratzeke ditugun aldeak bilduko dituen liburukina argitaratzea, 2010ean "Gernikako

seme-alabak" liburuarekin hasiko den bidea. Liburu honetan azken 50 hamarkadetakako errepresioaren ondorioak biltzen ari gara, baina sintesi horretarako herriz herriko eta esparruz esparruko datuak biltzen aritu gara azken hila-beteetan, eta soka beretik ariko gara datozen lanetan ere, garai historiko jakinei zein gai jakinei dagokienez ditugun hutsuneak betetzeko asmotan. Argitalpen-lerro hau, noski, apal-tasunez bide luze honi eskaintzen diogun ekarpenetako bat besterik ez da, izan ere herriz herri ondare historikoaren zabalpen eta hedapenari begira egin daitezkeen ekimenak anitz baitira, eta guztiak ezinbestekoak aipatu ditugun helburuei heltzeko.

Hau guztia errealitate bilaka dezagun, ordea, oinarria behar dugu, egitasmoaren bideragarritasuna zein iraunkortasuna bermatuko duen oinarria. 2011rako 6000 babesle behar ditugu egitasmoak aurrera egin dezan, eta horixe da hain zuzen babesle horiei eskatuko zaiena:

- Datozen urtetan argitaratuko diren liburu eta aldizkarien harpidedun egitea (urtean liburu bat, formatu dotorekoa, eta bi aldizkari).
- Hala eskatuz gero, urteko liburua jasotzen denean kobratuko da, 65€
- Liburuak modu honetan soilik eskuratu ahal izango dira.

Anima zaitezte, sar zaitezte fundazioaren web orrialdean ([www.euskalmemoria.com](http://www.euskalmemoria.com)) eta formularioa bete ondoren bidali bertan esaten zai-zuen helbidera. Babestu horrela Euskal Memoria ekimena.



## Noiz kendu behar dira frankismoaren arrastoak

Frantziako iraultzaren ondoren euskaldunak, oro har, liberalismoa etsai moduan ikusiko zutela pentsatzeko, elementu nahiko badago. Euskal lurraldeak, Frantziatik aparteko nortasuna, ezabatu zuten, foruak eta bertan bera utziz, Gero herri osoak erbesteratu zituzten zigor moduan, foruen alde egin zituzten borrokengatik, Hor daude, Sara bezalako herriak. Gauza onak ekarri zituzten iraultzaileak Frantziarentzat, baino euskaldunentzat nortasuna eta autonomia galtzea, eta zentralismo bortitz baten ezarketa.

Gauzak horrela, Napoleonen garaian frantziar armada gurean ibili ondoren, euskaldun askoren artean, giroa nolakoa izanen zen, pentsatu daiteke. Erregeak, aristokrazia, eliza...dena zalantzan jarri zuten liberalek, baita bertako foruak ere. Horiek babesten zituzten herri-lurren erabilpenak, askorentzat bizitzeko oinarrikoak.

Liberalismo, orduko mugimenduak, burges eta aberatsen aldeko joera zuen, argi eta garbi, eta herri-lurrak salduarazteko legedia osatzen zuten. Pentsa, nork zuen dirua hainbeste lur sail erosteko?... Baserritarrek eta maizterrek ez, jakina.

Karlismoak bizi-iraupen luzea izan zuen gurean.

Txapelgorrien multzoak, horrela, osatuz joan ziren. Haien aldarrikapenetan dinastiaren jarraipenak baino arrazoi sendoagoa hara zein izan zitekeen: foruak, Marxen atentzioa ere deitu zuten herri mugimendu bezala.

1839. urtean, Joseph Agustin Chaho zuberotarrak "voyage en Navarre pendant l'insurrection des basques 1830-1835" bere liburuan, Karlistak euskal independentzia lortzeko indar bat bezala jotzen zituen, Zumalakarregi-eta goraiatuz. Leitza aldera nola etorri zen azaltzen digu bere liburuan, junta Karlista, Leitza zegoela eta, Goizueta aldetik nola etorri zen eta..., nahiko burutazioez hornituta. General Sagastibeltza leitzarra ere aipatuz. 1843 aldera. Victor Hugo ezagunak, karlistadak euskal nortasunaren aldarrikapena foruzalea guztiz jotzen zituen, eta independentzia-zalea.

Gamazadaren garaian, 1893, Nafarroa osoa irakiten egon zen foruen aldarrikapenean, Aranatarrek ikurrina lehen aldiz publikoki orduan agertu zutela esaten dute, eta Nafarroan gainera.

Gerora, bi adar sortu ziren enbor beretik, karlistoaren alderdi ezberdinak, monarkiko sutsuak eta PNV/EAJ. Biak ere oso elizkoiak, eta XIX. mendeko gerra eta gatazken ondorioz elikatuak, batez ere foruen galtzearen saminaretik. PNV/EAJ haren eliteak Bilboko jauntxo industrial berrietan erroto ziren, karlistoarenak, berriz, errege eta aristokraten kontuetan. Herritarren artean XIX. Mendeko oroimenak bero zeuden..Ezker indar ezberdinak ere, agertuz joan ziren baita abertzale ezkertiarrek ere EAE/ANV sortuz.

Gauzak horrela, etorri zen zorigaitzoko 1936ko gerra izugarri hura. Leitza bazegoen, Nafarroako herri gehienetan bezala, Circulo Carlista bat, gaurko zirkulu taberna dagoen tokian, Tardoa etxean. Han biltzen ziren bertako karlistak. Ondoren, militarrekin bat egin da, altxamendua bultzatu zuten, gerora frankismo beldurgarria ezarri.

Antonio Lizarza Iribarrenek, requete sortzaile eta antolatzaile leitzarrek, honela dio bere "memorias de la conspiración 1931-1936" liburuan: Leitza, 1931. urtean, bilera garrantzitsu bat burutu zen, Baleztenandarren etxean, milizia bat sortzeko helburuarekin. "Decurias" asmatu





## 32. ZENBAKIA

zuten, Generoso Huarteren zuzendaritzapean, "Junta Sacerdotal"-ek parte zuzena hartu zuen horiek antolatzen, herriz herri. Izenak ere azaltzen dira esandako liburu horretan... (apezak alajaina...) Haren semeak, Francisco Javier Lizarza



Indak, honela dio leitzen izandako altxamenduko uneaz:

*Nosotros estábamos en Leiza con mi madre, y el mismo 19 de julio, a media tarde —no lo olvidaré nunca, yo era un niño de ocho años— llegaron los primeros requetés: eran dos autobuses de chicos de Olite, chicos jovencísimos, de 16 o 17 años, todos con boinica, camisa blanca y alpargatas del campo. Pararon en la calle principal de Leiza, frente de la fonda Gogorza, y allí estaban para recibirles las autoridades del pueblo. Estaba el alcalde de Leiza —de origen carlista—, el cabo de la Guardia Civil, mis tíos Nazario y Rufino... Entonces, el cabo de la Guardia Civil soltó un pequeño discurso: «¡Bienvenidos!, Leiza os agradece que estéis hoy aquí, porque venís a salvar España...». Y para terminar, el cabo gritó: «¡Viva la República!». Entonces, la gente del pueblo presenté le increpó: «¡Txorua!, ¡txorua!» —que significa "loco" en vasco—, y él nervioso corrigió: «No, que me he equivocado, ¡muera la República». Aquél estaba —como muchos militares— con esa idea de que la sublevación serviría para restaurar el orden, pero continuando la República. Guardia zibilak ongi etorria ematen, adierazgarria ez da?*

*Aquellos primeros requetés recibieron orden de ocupar el puesto que tenían los miqueletes en Urto, en la misma frontera entre Navarra y Guipúzcoa, y hubo un enfrentamiento, un intercam-*

*bio de tiros con los miqueletes, en el que murió Joaquín Muruzábal Muruzábal, de San Martín de Unx, el primer requeté caído en la guerra y único*



*que murió en suelo navarro. Recogieron el cuerpo y lo velaron en la plaza de Leiza.*

Legalki zeuden Mikeleteak akabatzen joan ziren, eta hor hil zuten San Martin de Unxeko reketea. Berari jarri zioten oroitarria... Zer gertatu zen legalki zeuden Mikeleteekin? Eta ihesi pasatzen zirenak, Leiza eta inguruetatik, ehizatu zituztenak? Antonio Lizarza honek kontatzen du, Conde de Rodeznok horrela eskatuta, makiak harropatzeko 105 boluntarioko talde bat nola antolatu zuen, horietatik 35 leitzar. Gure inguruetan ihesi zebiltzanekin zer gertatzen zen jakiteko ez da asko arakatu behar, adineko jendeetan, beste toki askotan bezala inguru hauetan ere, azalduko litzatekeela lurperatutakoren bat. Non dituzte haiek oroitarria eta duintasuna?

2007ren urriak 31ko legeak, frankismoaren sinboloak kentzeko agindua du. Garaia da herrian dauzkagun Frankismo garai ilunetako ikur eta orogarri guztiak erretiratu, erakustoki batean biltzeko, jendeak ez dezan ahaztu gure iragana beltzena... (falangeko ikurrekin plakak nonahi daude etxeetako atal-gainetan, oroitarriak eta elizan ere Frankoren arrano erraldoi bat dago, guztion lotsarako. Ozenki egin behar da aldarria, instituzio, elkarte, bizilagun orori horiek guztiak kentzeko.

Hernal.

## Zutik Euskal Herria

Anoetako proposamena egin ondoren, 2005-2007 urteetan, estatuarekiko negoziazio saiakera gauzatu zen. Saiakera horretan aurrerapausoak eman ziren, baina ez zen lortu azken muturrera eramatea Euskal Harriaren aitortzan eta errespetuan oinarritutako trantsizio politikoa abian jartzea. Harez geroztik ezker abertzalea eztabaida sakon batean murgilduta egon da, iazko udazkena eta aurtengo udaberri bitartean bukatu dena. Ikusmin handia sortu du eztabaida horrek, eta jadanik hainbat ondorio ekarri ditu (Altsasuko adierazpena, Iruñeko adierazpena, EArekin egindako akordioa). Hauek dira eztabaida horren baitan egon diren gakoetako batzuk:

### Kokapena:

- 50 urteko borrokaren ondorioz, estatuak Euskal Herria asimilatzeke egin duen diseinuak porrot egin du; alegia, estatutoak eta nafar amejoramenduak huts egin dute. Gaur egun indar betean jarraitzen du herri nahiak eta borroka grinak.
- Euskal Herrian badaude aldaketa politikoa gauzatzeko baldintzak. Gero eta sektore zabalagoak daude independentziarako apustuaren alde.
- Anoetako Proposamenak euskal jendartean babes zabala du. Gatazka gainditzeko formula egokia da.
- Nazio eraikuntza bultzatzeko, arloz arlo definizio maila handiak lortu dira, eta hainbat kasutan urratsak ematen ere hasi da: euskal kurrikuluma, Euskal Kirolarien Biltzarra, Ikastolen Elkargo Nazionala, Euskal Laborantza Ganbara...
- Ipar Euskal Herrian indar abertzaleek gero eta babes zabalagoa dute.
- Euskal sindikatuak eta hainbat eragile elkarlanean ari dira, bai krisiari aurre egiterakoan eta baita aurrera begira eman beharreko urratsetan ere.
- Ezker abertzalea, ilegalizazioen eta errepresio bortitzaren gainetik, egoera berriak sortzeko gaitasuna erakusten ari da.
- Azken aldi nazioartean ahots berriak altxatu dira euskal gatazka konpontzearen alde. Nolanahi ere, geure burua engainatuko genuke ez bagenu hainbat faktore ezkor ere aintzat hartuko, epe ertain batean ondorioak izan lezaketenak.
- Gatazkek ez aurrera ez atzera jarraitzea; bitartean, denbora luzean, estatuak egoera hori gaurko estatusa egonkortzeko erabiliko luke.
- Ilegalizazioaren eta errepresioaren ondorioz ezker abertzalearen eragina mugatzea, bai instituzioetan eta bai herri mailan, jendearen artean beldurra zabalduz.
- Hiri handietan, populazioaren parte handiena kokatzen den gunetan hain zuzen ere, eragiteko zailtasunak.
- Ezkerreko balioen jeitsiera eta, bestalde, indibidualismoaren eta kontsumismoaren baliok zabaltzea.
- Azken 50 urteotan lortu duguna asko bada ere, ez dugu behar adina indar metaketa lortu eman beharreko jauzia emateko. Eta aurrera begira, zer?
- Fase politiko berria aldaketarako fase gisa kokatzen dugu. Fase horretan helburua izanena da Euskal Harriaren aitortzan eta errespetuan oinarritzen den Marko Demokratikoa lortzea.
- Prozesu Demokratikoa da ziklo aldaketaren palanka, eta behar den aldaketa abian jartzeko tresna nagusi bezala planteatzen da; gorabehera ugari izanena ditu, eta denboraz luzea izan liteke. Prozesua behar den bermearekin eta baldintza egokian garatu ahal izateko, estatuen injerentziarik ezan eta bide demokratikoetan oinarritu beharko litzateke. Hiru geltoki desberdin planteatu dira:
- **Gutxieneko oinarri demokratikoak:** indar politiko guztiak berdintasunean aritzeko eskubidea, errepresioa etetea, presoak Euskal Herriaritzea.
- **Akordio Demokratikoa:** lehenik Euskal Harriaren alde gaudenon artean, ondoren beste eremuetara zabalduz, Euskal Harriaren nazio

izaera aitortuz, proiektu guztiak gauzagarri bilakatzea bermatuz, eta euskal lurraldeen eta estatuaren arteko harremanetarako bide juridiko-politikoak egituratuz.

- **Marko Demokratikoa:** aurrez lortutako akordio demokratikoaren gauzapena litzateke, betiere herri borondatean oinarrituz. Prozesu demokratikoa gauzatu ahal izateko berme nagusia Herria izanen litzateke; horrek eskatzen du Herriaren parrte hartze aktiboan oinarritzea, "denok eman behar dugu zerbait gutxibatzeak dena eman ez dezaten" bilakatuz. Aurrera egiteko lanabes eta bitartekoak.
- **Borroka:** beti esan dugu, eta azken 50 urte honetan ongi aski ikusi ere, lortutakoa borrokaren bidez lortu dela eta etorkizunean ere hala izanen dela, gero eta herritar gehiago lanari eta borrokari lotuz.
- **Indar metaketa:** bai Euskal Herriaren alde lana egiterakoan eta baita errepresioari erantzuterakoan ere, indar metaketa euskal eragile politiko, sozial eta norbanakoen artean.

- **Nazio eraikuntza eta intsumisioa:** nazio eraikuntza izan behar da lanabes eraginkorrena Euskal Herrian egoera berriak lortzeko; asko da orain arte egin dena eta definitu dena, beraz, praktikara eramateko garaia da. Hitza hartu Euskal Herriak. Eraiki dezagun gaurdanik Euskal Herria, biharko utzi gabe.
- **Borroka instituzionala, ideologikoa, mobilizatzailea:** Prozesua behar bezala burutzeko, nazio eraikuntza instituzioetatik bultzatzeko, borroka ideologikoa landu, eta baita mobilizazioak antolatzeke ere, ezker abertzaleak erreferente legal berria sortu beharko du.
- Asko da orain arte irabazitakoa, eta asko dugu irabazteke. Sartzen ari garen garai berri honetan ezinbestekoa da herritar gehiagoren inplikazioa, jadanik dauden eta sortuko diren eragileetan antolatuz; beraz, ekin lanari, eta lortuko dugu.

Euskal Herria Askatu



## Otaño 'tar bertsolarien bizitza eta gertakariak

Pedro Maria Otaño izeneko bi bertsolari izan dira Euskal Errian, alkarren artean aitona-bilobak ziranak.

Leenengoa Pedro M<sup>a</sup> Otaño Tapia, Larraulko Larrunbide baserrian jaio zen 1803'ko apirilaren 2'an eta 1883'ko abenduaren 27'an il zen, oni Errekalde Zaarra esaten zioten. Larrunbide baserrietik zein urtetan ez dakigula, Zizurkilko Errekalde baserrira bizitzera aldatu ziren.

Baserri au, 3 bertsolari aundien seaska izan zen. Leenengoa esan degun bezala, Pedro M<sup>a</sup> Otaño Tapia izan zen. Bigarrena Joxe Bernardo Otaño Lasa, 1842-ko urriaren 11-an jaioa, Errekalde zaararen semea. Irugarrena berriz Pello M<sup>a</sup> Otaño Barriola Zizurkillen jaioa 1857. urtean eta Argentinan il zen 1910. urtean, ain zuzen orain dela 100 urte. Au Pedro M<sup>a</sup> ren biloba eta José Bernardoren iloba ain zuzen.

Errekalde zaarra- ren bertso batzuk iritsi dira guregana. Danak aotik aorakoak noski; baiña paperetan jarritakorik bat ere ez.

Bein batean Lezoko pestak omen ziran. Azkoiti-Azpeitiko bi bertsolari, Kortazar eta Uztarri, ara zijoazen. Bidea oiñez egin bear noski, eta Zizurkildik pasa bear, Otañotarren etxe aurretik ain zuzen. Ara aillegatu eta bertso-saio txiki bat egin omen zuten. Orduko bertso batzuk gorde dira:

1-Kortazar eta Uztarri  
Alkarren lagunak,  
Gaztetatikan gera  
Oso ezagunak;  
Orain nola diraden  
Lezoko egunak,  
gu gera etortzea  
pentsatu degunak  
lagundutzen badigu  
Jesucristo Jaunak

2- Bizkarrian txamarra  
eskuan makilla  
Santa Cruz bezperarekin  
gatoz Zizurkilla;  
lagun bat badet emen  
kantari abilla,  
apropos erten degu  
kontrario billa  
ortako denik bada

### **Errekalde Zaarrak onela erantzun omen zien:**

3- Kortazar eta Uztarri  
onera etorrita,  
asko alegatzen naiz  
zuek ikusita;  
andria ta umiak  
etxean utzita,  
zer pentsatzen dezute  
orrela asita?  
Gauza orri ez nago  
ondo iritzita

Orain aurrera ekingo det, Joxe Bernardo zeritzan bertsolariarekin, Errekalde zaararen semearekin, alegia. Au ere Zizurkilko Errekalde baserrian jaio zen. Bera gelditu zen etxeko nagusi naiz eta anai zaarrena ez izan. Ezkondu 1.866'ko ilbeltzaren 13-an egin zen Zizurkilko elizan Clara Ignacia Odriozolarekin, Beizamako alaba, biak 23 urte zizutzelarik. Bederatzi seme-alaba izan zittuzten, Zizurkilko Elizeko Bataio liburuan ikusten denez. José Bernardo Otaño bertsoaz kanpo beste lan batzuetan ere arduratu izan zen. Onek, familiandia zuen eta au aurrera ateratzeko lan aundia egin bear izan zuen.

Artzantzan bere gain ardi mordo baten jabe zen, auek ematen zizkien emaitzak, axuriak, gazta, ardi zaarrak eta illea Billabonako azokara eramaten ziztuen saltzeko asmotan. Neguko aldi ardiak bertako inguruko barrotietan bazkatzen zuten, udako aldi berriz Aralarko mendietan.

Igeltsero eta tellatuko lanetan ere aritu omen zen gogotik.

Pello Errotarekin ere bertsoan elkarrengan maiz maiz aritzen zen eta alako batean Pellok galdetu omen zion:

Bernardo emaztia  
zer moduz aspaldian?

**Eta Joxe Bernardoren  
erantzuna:**

Nere andria  
sartu zen toki egokian  
ura ez da galduko  
ni naizen tokian;  
aur bat sabelian  
eta bestia titian,  
belar berria maiz  
det gure barautian.

Pedro M<sup>a</sup> Errekalde Zaarraren biloba eta Joxe Bernardoren illoba, Ameriketara iru alditan joan omen zen. Ameriketatik bigarren aldiari etorri zenean, famili osoa baserrian itxopen zegoen ea Pello noiz iristen zen, geien bat bere osaba Joxe Bernardo. Illoba baserrira iritsi zenean, etxe ataritik osabari bi bertso bota zizkion eta baita ere osabak beste bi bertsoekin illobari erantzun. Bai, bai bertso unkigarriak eta biotzak suspergarriz jartzeko moduan zin zinetan eta irakurle zintzo zaitudana aurrez aurre dauzkazu:

1-Osaba, baldin ez badaduka  
eiteko aundiyen bat or,  
gizon bat dago berorren galdez,  
ate- ondoraño betor.  
Berorrek ondo dakiyena da  
agintzen dana dala zor:  
bera jaio zan oiaren billa  
illoba oraintxe dator.

2-Nere illoba, esaten dizut  
ongi etorri zerala;  
jaiotako oia jantziko dizut  
gusto aundiz bereala,  
erropa zuri ederrenakin  
parpallak darizkiola,  
sinistapena izan dezazun  
biyotzez nai dizudala.

3-Esperatutzen nuan bezela  
egin nau errezibitu:  
gizon on baten sentimentuak  
Zeñek bedorrek baditu.  
Mesede asko egin izan dit  
denak esango banitu;

bañan memori simple askotan  
Ezin litezke kabitu

4-Eskerrik asko esaten dizut  
aitormen ori dalako;  
orregatikan gure etxian  
ezer etzaizu faltako;  
edari onak izango dira,  
aukera, berriz, jateko;  
zure aitzekin biyok ederki  
Tripak ditugu beteko.”

Emendik aurrera bertso sorta apal bat irakurtzeko badittuzu:

**Aita - semeak ( 1900 )**

1-Lagundurikan  
gugatik ill zanak,  
seme, azi zaitugu  
aitak eta amak,  
beti zure gidari  
izandu geranak.  
Oraiñ gurutze onen  
oñean esanak,  
ondo goguan artu  
biaituzu danak.

2-Zu Ameriketara  
joatia emendik,  
Jaunak ala nai badu  
zer egingo det nik?  
An ez dezu izango  
aitik eta amik  
baña estera galduko  
noranaira joanik,  
ez bazaizu aztutzen  
gaur emen esanik

3-Gorde zazu buruan  
Eta biyotzean  
aitak zer esan zizun  
onuntz laguntzean,  
bitarteko arturik  
Jesús gurutzean:  
Jaungoikua t´ait´amak  
batek aztutzean,  
ez leike ondo izan  
denbora luzean.

# PLAZAOLA ALDIZKARIA

4-Ez nizuke utziko  
joaten, egiyetan  
gure erlijiyua  
ez balitz an bertan.  
Iritxiko baziña  
aiñ urrutiyetan,  
erri ta elezarik  
ez dan tokiyetan,  
oroi zaitez Jainkoaz  
Leku guztiyetan.

5-Seme, izan goguan  
zere gurasuak,  
eta uzten dituzun  
senide gozuak;  
jaio iñan tokiko  
mendi ta basuak,  
euskerazko otoitzak  
edo errezuak  
erakutsiyak zure  
amatxo gaixuak.

6- Iritxi da orduba  
juan bear dezuna  
badakizu ait´amak  
emen dauzkatzuna;  
ez dezazula aztu  
gaur neri entzuna,  
itz baterako au da  
eskatzen zaizuna:  
izan zaitez non-nai ta  
beti euskalduna

## Amari

1-Aditu degu askok  
zugandik aldegiñ,  
jakin nairikan zer dan  
euskeraren gala;  
eta guk erantzuten  
degu beriala  
izkuntza zerutar au  
gure Ama dala.

2-Ta nola zor dizugun  
geren izatea,  
mundu guztiari nai  
degu esatea:  
biyotza maitasunez  
daukagu betea,  
gurekin konta zazu,  
Amatxo maitea.

3-Ez degu nai beñere  
galdetzen dubala,  
askok egiñagatik  
ainbeste alegiñ.  
Ill artean euskaraz  
nai degu itzegiñ  
gure Ama bakarrik  
Gelditu ez dediñ.

## Zazpiak bat (1900 )

1-Zazpi aizparen gai dan oiala  
ebakirikan erditik,  
alde batera iru soñeko;  
utzirikan lau bestetik;  
goraiziakin berezi arren  
bakoitza bere aldetik,  
ezagutzen da jantzi dirala  
zazpiak oial batetik.

2-Oialtzat artu zagun euskera,  
goraizitzat Bidasoa,  
ibai koxkor bat besterik ez da,  
utsa balitz itsasoa:  
elkarren urbill daude zazpiak,  
muga deitzen da Pausoa,  
zergatik izan bear ez degu  
famili bakar osoa?

3- Arbola baten zañetatikan  
sortzen diran landariak  
bezela gera Bidasoaren  
bi aldetako jendiak;  
berdiñak dira gure jatorri,  
oiturak eta legiak,  
Ama Euskerak magal berian  
azitako senidiak.

4- Ama Euskera! Bere semeak  
gu Ameriketean zenbat  
arkitzen geran! Ta urrutitik  
maitiako degu anbat;  
emen ez dago Bidasoarik  
ta beste trabik an ainbat,  
Ama maitia indartu dedin  
Izi bedi “ Zazpiak Bat”

# 32. zenbakia

## Laurak bat

1-Euskal jauregi onen gañean or dago Ama Euskera, etorri dana lotsagarritzko kate gogorak austera, gelditzen zaigun bide bakarra semeai erakustera, lagun dezagun izan gaitezen len beziñ libre ostera.

2-Euskal – erriyak, etsai asko garaiturik, beiñere katibatu ez du mendekorik; ta besteak indarra legetzat arturik, eduki nai gaituzte ankaperaturik.

3- Gure etsai zitala arrazoiz balebill gu egongo giñake ixil eta umill; bañan altxako gera, txarkeriz baitabill katibu bizi baño Naiago degu ill.

Leitzarrok eta beste irakurzaleok au dezue nik azaltzen dizueten irakurgaia. Aurtengoz besterik ez, osasuna izan dezazutela, jainkoaren onez.

Mikoneko Demetrio Salbarredi´k



## PUBLIZITATEA

**PLAZAOLA**  
Leitzako Aldizkaria



Ongi pasa bestak!

*Aritzela*  
DEKORAZIO  
TAILERRA

- Kortinak
- Tatak, barrak, mekanismoak...
- eta kortinak egiteko prezio guztiak salgai
- Ohe eta Elheko jentziak
- Euskal jentziak

*Ongi pasa pestak!*

T. 948 61 06 11 - 035 71 30 02  
Landa Industriak S.L. Suci 3 LEITZA (Nestora)

**Taxi** Dabid Barriola



Tel. 679715169  
LEITZA



**ZUBI**

Poligono Usabal 14 - B  
20400Tolosa (Gipuzkoa)  
Tel. 678 964 730  
igorzubillaga@hotmail.com

FATXADAK ETA  
BARRNE DEKORAZIOAK



**ZORTZIKO LABETXEA  
KAFETEGI GOZOTEGI ETA OKINDEGIA**

- Ogi egin berria
- Prentsa, Gosari goxo goxoa (laranja zuku naturala, croissant eta kafea)
- Pastak, Pastelak, Tartak (Enkarguak egun batetik bestera ekartzen dira)
- Zapora gutrietako kukurutxuzko izozkiak

*Pesta onak pasa!* Elbarren 20 Tel. 948 510 720



**Zortzadar**  
Amazabal, 37 • LEITZA  
948 610 756 • 615 100 842

**ongi pasa pestak!**

**G@ZTETXO** **ZIBERGUNEA**

- @ INTERNETA
- @ JOKOAK-SAREAN
- @ JUEGOS EN RED
- @ ESKANERRA
- @ INPRESORA



**ELBARREN 16 • LEITZA TEL. 948510741**

**ARANTXA**  
ileapaindegia

**GORA SAN TIBURTZIOAK**

Obispo Huarte, 8  
948 610 931



**GORRITZ**  
**ERAIKUNTZAK • ESKABAZIOAK**

LEITZA (Nafarroa) TLF: 948-510 140/ FAX: 948 510 996

**SANTIBURTZIO  
ONAK PASA!!!**





POLIURETANOZKO  
BABES ETA  
INJEKZIOZKO  
ISOLAKETA

**AISLAN-LEITZA, s.l**

689 800 371  
Santa Luzia pasealekua, 4 B behea Buztintxuri • IRUÑA



**EGUZKI** ileapaindegia  
ASUN eta LIDIA

Ongi pasa pestak

Eibarren 34 - 1.A • ☎ 948 610 649 • LEITZA

**LEITZAKO**  
**gasolindegia**

Rafael Mugicaren alarguna

**948 510 057**



**ASTIZ** ANAIK  
ZURGINDEGIA

Klase guztietako egu lanak,  
ateak, leihoak, tarima,  
armairuak eta kristaldegia

ONGI PASA PESTAK!!

948 610 606 • 948 510 285

**LEIZA ANAIK SL**  
**eraikuntzak**

*aupa San Tiburtzioak!*

Lizarraga, 17 • 948 610 927 - 948 610 934

**EROSLE**  
SUPERMERKATUA



*Gora San Tiburtzioak*

☎ 948 510 007 ☎ 948 610 657 • LEITZA



**LEIZA**  
MANDRILADORA

**ONGI PASA PESTAK!** 

Eluseder Pol. Ind. • Tel. 948 510 600 - 948 510 601 • Faxa 948 510 602

**PERURENA**  
harategia

Hemengo zekorretan espezialitatea  
Urdaitegia

■ *Jai Zoriontsuak opa dizkizue* ■

Tel.: 948 51 01 64

**OLIVEIRA - VICENTE**  
ERAIKUNTZA

Ongi pasa San Tiburtzioak

Amazabal kalea 17, 3.B • Leitza  
629 41 84 31 • 606 30 78 10

**BELAR DENDA**



*Belara*

Telf. 948 51 01 92 - **LEITZA** (Nafarroa)

Pintura lanak orokorrean



**MELO**  
pintura lanak

Tfnoa: 609 873 178 - LEITZA



**URTO KARROZERIA**

TXAPA ETA PINTURA KONPONKETAK  
Jesús Azurmendi Jauregi

Ongi pasa San Tiburtzloak!!

Kamineros etxea BERASTEGI  
☎ 943 68 34 99 - 948 61 06 64



**BEATRIZENEA**  
TABERNA-JATETXEA

PESTA ONAK IGARO

MENUA • OTARTEKOAK • KAXUELITAK • PINTXOAK

Mikel Deuna, 2 • Tel: 948 510 991 • LEITZA

**denontzat**  
MERTZERIA

Jostun tresnak, galtzerdiak eta azpiko arropa

Tel. 948 51 05 61 • LEITZA



**ARDI-GAZTA**



**Gorritz**

*Pesta alaiak pasa ditzagun errepresaliatuak gogoan ditugula*



Xabier Sestorain • Gorritz baserria • LEITZA • 948 510 570



**PERITZA**  
TABERNA

PESTA ONAK PASA  
ETA TXINTXO IBILI

ESKERRIK ASKO ANTOLATZAILE GUZTIEI



c/ elbarren, 67 bajo  
t. 948 510 197  
leitza

**AiNART**  
ILEAPANDEGIA



Olaia  
Bazar

LOREAK  
PAPERTEGIA  
JOSTAILUAK  
HERRAMINTAK  
ETXEKO TRESNAK  
JANTZIAK  
GARBIKETARAKO  
PRODUKTUAK

ONGI PASA BESTAKI

LEITZA • Elbarren, 36-37 behea • 948 510 437



**GARBILAN LEITZA S.L.**

Obispo Huarte 8, 2. C  
Tel. 696 75 56 43

*pesta onak pasa!*

**MENDIGORRI**  
elkartea

Pesta onak igaro

**Patxi Arrazola • LEITZA**



**KAPRITXO**

- \* Opariak
- \* Bitxiak
- \* Neska eta mutilen arropak

ONGI PASA PESTAKI  
Landa Ind. 948 510 994



**JEIKI ABESBATZA**

www.jeikiabesbatza.com  
jeiki.leitza@gmail.com  
Tel.948 510 512

**Gora San Tiburtzioaki**



**MAIMUR**

- Prentsa · opariak · testu liburuak
- Plastifikatzeak · enkuadernatzeak
- Inprenta lanak · fotokopiak

**ONGI PASA PESTAKI!**

Herriko Plaza  
**LEITZA**  
Tfnoa-Faxa:  
948 510 146

ONGI PASA PESTAKI



**Lizarraga**  
harategia

Elbarren, 71 · Tel. 948 510 007 · Leitza



**SAGASTI JATETXEA**

ongi igaro pestaki!



Elbarren, 98 · LEITZA · ☎ 948 610 637

Gosariak · Kaxuelak · Ogitartekoak  
Bazkariak · Afariak

CARNICERIA



**Arzallus**  
HARATEGIA

*Cebollera y Productos Artesanos de elaboración propia*

C/ Elbarren, 37 • 31880 LEITZA • Tel. 948 51 03 77  
Etxe Aurrea • 20492 BERAESTEGI • Tel. 943 68 30 42

**BITXILORE LOREDENDA**

ONGI PASA BESTAKI

- LORE NATURALA
- LORE LEHORRAK
- EZKONTZETAKO LOREAK
- KOROIAK
- ETAB...

Elbarren 59 - Tel.: 948 510 654 - LEITZA

**TXOKO TABERNA**

- Pintxoak
- Otartekoak
- Kaxuelak

**JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE**



**BULDAIN**  
inmobiliaria

Tel: 948 510 534  
Mug: 649 476 615  
**LEITZA**

Festa onak pasa!  
Festa eder hauetan zuen nahiak bete ditzazuen opa dizuet

**JOVIZU** S.L.  
EMBALAJES

PESTA ONAK  
OPA DIZKIZUE

Leitzalareko errepidea, 1 km  
948 510 053



**edr'gunea**  
Ainhoa Azpiroz  
Esfelista

Laserra • Solariuma • Depilazioak • Makillajea  
Aurpegiko tratamenduak • Gorputzeko tratamenduak  
Opari baleak • Begien edertzea

Elbarren 67 behea • LEITZA • T 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es



**MUSUNZAR**  
**OSTATUA**

• Jatetxea  
• Logelak

Elbarren, 14 • LEITZA • Tfnoa: 948 510 607 • 948 510 475  
**ONGI PASA PESTAKI!**

**J.M. HERNANDORENA**

Burdindegia • Garbigarriak  
Oparidenda • Garraioak

**ONGI PASA PESTAKI!**

Telefona: 948 510 055



**ZURLAN**

ateak • zurezko leihoak • leiho mistoak • tarimak  
sukalde eta armairu enpotatuak  
zurgin lan guztiak

**ongi pasa pestakii!**

Goiko Errota - LEITZA  
Tfnoak: 948 510 402 - 609 067 123

**ORAIN ELKARTEA**

*Jai zoriontsuak opa dizkizue  
herritar eta bisitari guztiqi*

**LEITZA**



**GOZOTEGIA**  
*Eguzkitza*

Bº Erreka, 3 Bajo - 948 510 614 LEITZA  
Elbarren, 35 - 948 510 646 LEITZA  
San Frantzisko, 24 - 943 650 041 TOLOSA

**g**aztañaga **a**  
taberna

Otarrekoak, Pintxo beroak, Kaxuelak

**948 610 708**

Ongi pasa pestak!



**TXARAGORRI**  
**ITURGINTZA**  
**FONTANERIA**

**ONGI PASA BESTAKI!**

Elbarren, 56 (Martikonea) • Leitza • 649 853 440



**ASTIZ**  
**Liburudenda**

» Prentsa  
» Testu liburuak  
» Opariak  
» Inprenta lanak  
» Eskolako gaiak

Pesta onak pasa

Elbarren kalea Tel/Faxa 948 510 262



*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

**iruso**  
Jatetxe-ostatua

Tfnoa: 948 397 035 / 669 013 294  
www.iruso.com

# IMELDA LARRAZ

Estankoa, Janari denda etb...

Jai zoriontsuak opa dizkizue

## LEITZELARREA S.L

aroztegi metalikoa

Landa Industrialdea, 20

Tel: 948 510 598 - 669 368 991

LEITZA

# GARBI

Garbigaidenda eta lurrindegia

948 51 01 73

*Ongi pasa besta!*

## ARAKINDEGIA

jatetxea

Menua · Karta  
garaien garaiko otorduak

ONGI PASA PESTAK!!

Elbarren, 42 · LEITZA

Tfnoa: 948 510 052 · Faxa: 948 510 633



## BIKOITZ

Taberna

- » Pintxoak
- » Otartekoak
- » Pastelak
- » Tartak

ENKARGUAK ERE HARTZEN DITUGU  
Ongi pasa pestak!

Elbarren, 16 · LEITZA · Tfnoa: 948 510 072

## GURATZ-MENDI

K.K.J. ELKARTEA



*ongi pasa bestak!*

Elgoien, 22  
LEITZA

## AMAIA



arraindegia

EGUNEKO ARRAIA

ONGI PASA  
PESTAK !!

Uharte Gotzaia · LEITZA  
948 510 590

## Biok Jantziak



Gizonezko, emakume eta umeentzako jantziak

Elbarren, 32 · LEITZA · 948 510 558 · 948 510 477

## PLAZA ASEGURUAK

Mota guztietako aseguruak  
Pesta onak pasa ditzazuela

M<sup>a</sup> Carmen Calderon  
Uharte Gotzaia, 8 · LEITZA  
Tfnoa: 948 510 338

## ARIZTIMUÑO ANAIK

eraikuntzak

Lan orokorrak eta berrikuntzak

Ogin pasa pestak

948 510 202 · 948 510 374 · LEITZA



**BANCO DE VASCONIA**

*Leitzar eta bisitari guztiak  
pesta goxo batzuk pasa ditzazuela*

**948 510 138 - LEITZA**



**Leizarra taberna**  
948 510 352 • LEITZA  
Pesta onak pasa

PESTA ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE!



**OGI BERRI**

*— Ogi eta opil artisaauak —*

**JUBILATUEN  
TABERNA**

Ongi pasa  
San Tiburtzioak!

**948 610 935**

**Ane Egizabal Liata  
FISIOTERAPEUTA**

CPS-C01824-1/09NA



- Errehabilitazioa
- Osteopatia
- Kirol eta zirkulazio masala
- Erditze aurreko / ondorengo tratamendua:
- Mutuak
- Aseguruak
- Partikularrak

**Ongi pasa San Tiburtzioak**

**Uharte Gotzaia, 8 3.C - LEITZA - Tel.: 948 510 730**

**JEXCAVACIONES  
JOARBE S.L**

*Jai zoriontsuak  
opa ditzizue*

OBISPO HUARTE 8  
Tel/Fax.: 948 610 971  
Mugikorra: 629 219 068



**Grupo Tanatorio Taldea  
IRACHE**

Maldarreka S.L.  
Leitzako Belatokia

**24 ORDUKO ZERBITZUA  
BELATOKIAN ETA ETXEAN**

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

**TEL. 948 63 74 04 • 628 03 02 90**

**ETXE-TRESNAK S.L**

Elektrogailuak  
Instalazio elektrikoak



*ongi pasa pestak!*

Elbarren, 45 • LEITZA  
T: 948510181 • 948 510 208



**ARRARAS**

**edariak, s.l.**

Eluseder industrialdea, 1 - Areso (Nafarroa)  
Tel. 948 610 888 | Fax 948 610 863 | Mug. 630 048 770

**KORNIETA  
ELKARTEA**

Ongi pasa  
San Tiburtzioak  
**LEITZA**



## HARATECIA-URDAITECIA URKIOLA

*Dai zorientsuak  
opa dirkizue*

Idi haragitan eta hemengo Zekorretan espezialitatea

Tel. 948 510 747 / 948 510 467 - LEITZA



# KIDE

aholkularitza

**ONGI  
PASA  
PESTAK!**

Kontabilitatea · Zergak · Autonomoak · Enpresen sorrerak  
Autoen transferentzia · Errenta aitopenak · Aholkularitza juridikoa  
Nominak, kontratuak...

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T. 948 510 990 F. 948 510 429  
DONOSTIA: Bergara 23 -1Ezk • T/F 943 42 03 48



## CAJA RURAL DE NAVARRA NAFARROAKO RURAL KUTXA

*Pesta onak pasa*

Leitzako Bulegoa • Elbarren, 35 • Tel / Faxe: 948 610 735



**Leitza Garajea  
Peugeot Agentzia**

STIHL AGENTZIA 6 NEKAZARI TAILERRA

*la denok kategorizko pestak pasatzen ditugun*

Landa industrialdea Tel. 948 510 466 / 948 510 404 6LEITZA



**Dia** 

**OKABIO**

**Kafetegia**

**SUPERMERKATUA**

Pesta zorientsuak  
opa dizkizuegu!

Tel: 948 510 731

 **Dia**  **Landa Etxea · Leitza**

**CARLOS  
SAGASTIBELTZA  
VILLANUEVA**

**ARKITEKTU TEKNIKOA**

Proiektuak • Aurrekontuak  
Berrikuntzak • Obren kontrola  
Lur neurketak • etab

948 610 677 • 629 611 912

**Ongi pasa San Tiburtzioak !**




**TORREA ETXEA**


GOSARI, ETA AFARI, EDERRAK

EUSKAL MARTXA ETA  
BORROKA ERREPRESALIATUAK  
AHAZTU GABE





948 61 09 09



**Leitzako Udalak**

*pesta onak opa dizkizue!*

Leitzako Udala





Sabaiak, intsonorizazioak,  
hormak, apalategiak eta erreformak

www.pladurnavarra.es - pladurnavarra@yahoo.es  
Efrain 660 677 888 - Jon Ander 628 055 178  
Bidaburua 1, 1D - Atarrabia (Nafarroa)



Makilaje saioak ere egiten dira, aurrez hitzartuta  
*pesta onak pasa!*

Kale Nagusia, 1 Behea  
20492 Berastegi

tel. 943 683 697

## DENAUTO SAGASPER TAILERRA

AUTO KONPONKETA - CITROEN AUTOAK - GRUA ZERBITZUA



Eluserder Industrialdea  
Poligono Industrial Eluserder

Tel.: 948 510 610  
Faxa: 948 510 917

31876 ARESO  
(Nafarroa)

**Mikel Zabaleta**

**abokatua**

**Pestak ongi pasa!**

Tfnoak : 676 24 21 24 / 948 510 541 • mzabaletaa@micap.es

**GURIA**  
KARROZERIAK  
TXAPA - PINTURA

**P.KALDERON**

### Txapa

• Neurgailu elektronikoa ordenadorez, diagnosiak bankaden neurria.

### Pintura

• Labe kabina. Denetariko pinturak (ekolojikoak, uretara...)

### Autoqarriketa

• Garbitzeko ur beroko makina, aspiragailua. Irekita egun guztiak

### Berreldaketa

• Denetariko akzesorioak eta berreldaketak (llantak, pilotoak, kateak, etab...)

**LANDA POLIGONOA • 948 51 02 55 • LEITZA**



www.ikanet.net



**EUSKARAZ**  
**jantzi**  
el euskera viste

**LEITZAKO EUSKALTEGIA**  
Leitzako Udalerrian  
tel. 948 610 776  
leitza@ikanet.net

euskara ikasi!

**Lorea**  
ileapaindegia

☎ 948 610 907  
☎ 699 115 986

Inaztiabarun etxea  
Elbarren 98, Leitza



**TALLERES** **ONGI PASA PESTAK!**  
**Ireber** S.L.

**MANTENIMENDU PREDIKTIBOA**  
**INDUSTRI MAKINERIAREN MONTATZE ETA KONPONKETA**

Landa Industrialdea - Pab. 9B - 10B Leitza  
Tel. 948 510 842 - 639 134 464 - Fax. 948 510 843

**Jose Maria**  
**etxeberria**

gizonezkoentzako ileapaindegia

Gara San Tiburtziak

**jm** 948 510 282 • LEITZA



**aislamientos**  
**BERIAIN**

- SISTEMAS PYL
- ESCAYOLAS
- PROTECCION PASIVA
- AISLAMIENTOS TERMICOS Y ACUSTICOS
- TODO TIPO DE FALSOS TECHOS, REGISTRABLES ETC.

Pol. Erekaldea, C/.F - Nave, D • 31191 BERIAIN (Navarra)  
Telf.: 948 31 00 55 • Fax: 948 31 00 54  
E-mail: aislamientosberiaín@aislamientosberiaín.com

Iturgintza lanak  
kalefakzioa, gasa  
eta zeramika

**Gaztelu**

*Pesta onak pasa!!!*



Landa Behikoa Industrialdea 21  
31880 Leitza  
Tel: 948 510 086  
Email: gazteluf@infonegocio.com



**JAI ALAI  
OSTATUA**

Tfnoa: 948 510 735 • Faxe: 948 510 736  
www.jai-alai.es • info@jai-alai.es

**ONGI PASA PESTAK!!**

**Sagastibeltza  
eta Artola**

Era guztako igeltsero lanak  
*Gora Leitzako pestak!*

TEL: 948 510 265 / 948 610 724



**LEIMEN**

Era guztietako elektrizitate lanak

LEITZA 628 725 396 Argoitz  
MENDILLORRI 628 725 397 david

*Jai zoriontsuak denoi!!*

**ULI-ZAR  
ELKARTE A.S.L.**

ITURGINTZA, GASA, GASOLEOA, TXIMENEA

*Ongi pasa Pestak!*

Bide onde etxea ARESO • San Miguel, 2 LEITZA  
948 610 678 • 689 70 15 57

**Pagozelaya**  
construcciones

**ERAIKUNTZAK • HERRI LANAK**

*Jai zoriontsuak  
opa dizkizue*

Landa Industrialdea • 17 B 1go solairua  
31880 LEITZA • NAFARROA

Tfnoa: 948 510 346 • Faxe: 948 610 962

EZETZA beti da EZETZ



ardurak eta aisialdia



elkarbanatzen ditugu



ETA

JAIETAN

ZER

?